

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-01-10
ASTELEHENA
000. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



Beharapenen hasiera gorabeheratsua izan da, zubia tarteko

Asteburuan hasi izanak ekarri du jendea kanpoko saltokietara joatea | 12

Begarako plan estrategikoaren batzar irekiak, bihartik aurrera | 16



Australian hasiko dira lehiari irizar eta Velasco, asteon | 26



Txorbela otxoteak txundituta utzi ditu arrasatearrak | 30



Oñati, zulotik pantaila handira

Film laburren rallya egin zuten zapatuan Oñatin, "zulo" hitza gaitzat hartuta; saria Bilbora joan da | 29

JOSETXO ARANTZABAL

lazko urtarrilean baino laurehun langabe gutxiagorekin hasi dugu 2011

Datu txarrena Arrasatek dauka: 1.248 langabe. Segidan daude Antzuola (92), Bergara (677), Eskoriatza (196), Aretxabaleta (301), Elgeta (39), Oñati (365) eta Leintz Gatzaga (zortzi). Baina azken urtebetean hobera egin dute denek, Elgetak izan ezik. | 6

Ipini dituzte olioak jasotzeko makinak ibarreko herri gehienetan | 5

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
IRITZIA 7 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 |
KIROLA 22 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 |
DENBORA-PASAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 37 |
ZORION AGURRAK 38 | JAIOAKOAK 39

goienakluba



Iritsi dira abenduko opariak!
Badago zureta? | Zoaz 12. orrialdera

dks'10
debagoieneko
III. kirolsariak

Debagoieneko nork merezi du herriarren saria?

Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Urtarrilak 21 ostirala
Aramaioko Kultur etxean | 19:00

egin zure proposamena!



www.kirolsariak.com

Errespetuz hasi dira tabakorik gabeko egunak bailaran

- ▶ Erretzaileek bete egin dute tabernetan erretzeko debekua, eta ez da inongo arazorik izan
- ▶ Legeak askotariko iritzia pizten ditu, baina bezero zein tabernariok onartu egin dute
- ▶ Ostalariendako infomazio batzarra deitu dute Bergarako Lasa jatetxean, hilaren 13an

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Lasai eta jendearen borondate onenarekin: horrela joan dira urtarrileko lehenengo egunak Hego Euskal Herriari eta Espainiari eragiten dien tabakoaren aurkako lege berriaren pean. Tabernetako bezero gehienak ondo informatuta zeuden, eta legea bete dute: hala, bazekiten aurrerantzean ezin izango dutela itxitako eta konpartitutako espazioetan erre, tartean taberna eta kafetegietan. Hori baita legearen muina, nahiz eta kasu bereziak dauden.

Gipuzkoako Ostalarien Elkarteko zuzendaritzako kide Anton Elortzak baieztatu digu "arazo barik" joan direla lehenengo egun hauek. Datozen egunotan, herrikerri herri, hitzaldi batzuk egingo dituzte; batik bat, tabernariendako dira. Lehenengoa Bergarako Lasa jatetxean izango da, hilaren 13an, 17:00etan.

Galdetutako beste taberna batzuetako ugazabak bat datoz: errespetuz jokatu dute herritarrek. Inoiz bezeroen bati atentziora eman behar izan diotela onartu digute, baina konturatu barik isiotutako zigarroa segituan itsungi du pertsona horrek, tabernarien esanetan. "Nahasteak izan dira. Ohiturak aldatzea zaila da eta hasieran gertatuko da", esan du Arrasateko Monte tabernako Juan Carlos Davila ugazabak. Bergarako Ariznoa tabernan, bestalde, "aurpegi txarren bat" ikusi behar izan dute, baina salbuespena izan dira.

Begarako Eusebio tabernako bezero batek taberna kanpoaldean piztuko du zigarroa aurrerantzean. Horretan topatu genuen astelehen goizean. "Akordatu barik, tabernan piztu dut zigarroa, eta kalera irten behar izan dut. Ni ohituta nago lehendik ere kalean erretzera, eta ez zait kostatzen. Hori bai; legea gogorregia iruditzen zait. Ez dit erretzen uzten lagunduko".

Tabernetan eta lagunarte gehienetan, tabakoaren aurkako lege berria jendearen ahotan izan da. Tabernetan denetarikoa iritzia entzuten dira: erretzaile batzuek esaten dute "zuzena" iruditzen zaiela arautegi zorrotz hori, eta lehendik ere ohitura hartuta zutela kalean erretzeko. Orain bi urte erretzeari utzi zion gizonzko batek esaten zuen "ondo"

iruditzen zaiola legea: "Beste batzuek inguruan erretzeak ez dit trabarik egiten, baina orain hobeto egongo naiz".

Arrasateko Itoitz Lezeta erretzailea da, eta, esan digunez, "hasieran, legea oso gogaikarria da, baina hobeto pentsatuta, egia esan, ondo dago. Kosta egingo da, adibidez, zapatu gau baten ere betetzea, baina tira...". Hori bai, beste ondorio batzuk izan ditzakeela ere esaten du:

"Taberna goian bizi direnei galdetu beharko diegu ea ze iruditzen zaien kalean zarata handiago izatea, kaleak zikinago agertzea..." Izan ere, taberna askok hautsontziak ipini dituzte ate ondoan, kanpoan, baina ikusi egin beharko da jendeak hutsik egin gabe erabiltzen dituen eta, tabernako lurrera bota beharrean, kalean botatzen ez dituen errautsak zein zigarro mutxikinak.

Euskadin ere, lege bera

Ostalari gehienek bi aldeak ikusten dituzte. Honela esaten du Monteko Juan Carlos Davilak: "Osasun aldetik, guretako ondo dago; baina, era berean, erretzaileek ere eskubidea daukate kafearekin batera zigarratxo erretzeko kalera irten barik. Iruditzen zait mutur batetik bestera joan direla". Haren esanetan, "ikusi egin beharko da" epe luzean lege berriak zela eragiten dion osta-

laritzari. "Oraindik jendea kalean dabil, oporretan daude asko... Bestalde, Arrasaten daukagun gauza on bat da herriko jaiak ez direla oraingo hilabetean; Donostian, sansebastianetan, zailagoa izango da legea betearaztea". Eta gogora ekartzen du "Euskadin ere indarrean" dagoela legea; izan ere, "jende askok uste du legeak hemen ez duela eraginik oraindik, baina ez da hala".

Taupako tabernako ugazaba Beñatek ere bi aldeak ezagutzen ditu: tabernaria den aldetik eta, bestalde, erretzailea den aldetik. Haren iritziz, "ohiturak aldatuko dira; aldatu egin beharko! Dena dela, koadrila bat baldin badago eta bat ez beste guztiak baldin badira eta kanpora joaten badira erretzeko, erretzen ez duenari, kasu horretan, legeak mesede egiten dio edo ez? Ez nago ziur...". Haren iritziz, "legea txarto dago", eta esaten du tabernariok ez dutela "zaintzaile" izan behar. "Oraingoz, ez da arazorik egon, baina aste bukaeran zer gertatuko da? Oraindik ez dakigu...".

Tabernari batzuk hasi dira neurriak jartzen: hala, txanpinoi itxura duten eta taberna inguruetan txanpinoiak moduan gero eta ugariago ikusiko ditugun berogailu horiek daude. Taberna batzuek badituzte. Taupako terrazan badaude: "Elektrikoak dira. Bero handia ematen dute ondoan jesarriz gero. Honek ere laguntzen du kanpoan egon behar bada", esaten du Taupako Beñatek. "Aspaldi bagenituen butanozko batzuk, baina kendu egin genituen. Gero, lege berriaren harira, eskaintza bat ikusi genuen eta erostea erabaki genuen".

Zirrikitu barik legearen alde dauden ostalariak ere topatu ditugu. Hori da Bergarako Zuhaiti taberna eta jatetxeko Oscar Ardilaren kasua: "Lehen, ospitale inguruko taberna baten egiten nuen lan, eta han lehendik ere ezin zen erre; hortaz, badaramatzat sei urte ke barik lan egiten, eta sekulako aldaketa igartzen da". Haren iritziz, "legea ez da egin jendea hotzak egon dadin, baizik eta jendeak erretzeari laga diezaion, eta laga diotenak askoz hobeto daude orain lege honekin. Baina, jakina, erretzen jarraitu nahi dutenak ere errespetatu egin behar dira".



Zigarroaren partez, zigarroaren gaineko legea dabil denon ahotan. | ARRITXU BARRUSO

Gipuzkoako ostalarien elkar-teko ordezkari Antton Elortzak elkarte horren jarrera ofiziala azaltzen du: "Beldurraren legea da hau, eta tabernetako kea umeendako txarra baldin bada, elkarte gastronomikoetako ere txarra da", esan du, gogoraraziz elkarte gastronomikoak "pribatu" gisa jotzen dituela legeak eta, beraz, bakoitzak erabaki beharko duela zer egiten den barruan, eta erretzeko baimena ematen duten edo ez. Izan ere, tabernari askok denbora daramate salatzen elkar-teok "lehia desleiala" egin diezaieketela tabernoi. Eta ostalariok daukaten beste keku bat adierazten du: "Tabernariok ez daukagu zertan zaindari lanak egin bezeroekin".

Salmenta zabaldtu egin da

Elortzaren hitzek mahai gainean ipintzen dituzte legearen alde polemiko batzuk. Legeak garbi esaten du zein den erantzulea arau-hauste mota bakoitzeko,

baina ez du esaten zeinek bete-razi behar duen. Hala, adibidez, erretzea debekatuta dagoen leku baten erretzen duenak apurtzen du araua; baina, legeak espresuki hori esaten ez duenez, tabernariaren edo zerbitzariaren gain uzten du legea betearaztearen erantzukizuna. Horretaz keku dira ostalariak.

Bestalde, Euskadiko Ostalarien Federazioak tabakoa saltzeko makinak kentzeko dei egin die bere federatuei, "koherentzia" aipatuta. Gipuzkoako elkarteak, baina, ez dago federazioan eta ez du deialdirik egin. Dena dela, salmentarena beste puntu polemiko bat da: legea inoiz baino mugatzaileagoa izan arren, Espainiako Gobernuak salmenta leku mota gehiagori eman dio baime-na tabakoa saltzeko: besteak beste, zerbitzuguneetako dendei eta paper-dendei.

Ostalariak eurak ere arau-urratzaile izan daitezke. Hala, legeak behartu egiten ditu establezimenduaren sarreran debekua berri emateko kartelak edo iragarkiak ipintzera; eta errudun egiten ditu "legeak adierazten dituen gainerako betebeharrak" ez badituzte betetzen. Goian esandako arau-urratze arinak dira, eta adingabekoei tabakoa saltzea ere bai. Debekatuta dagoen lekuan erretzeak 30 euroko isuna dakar; eta 30 eta 600 euro arteko isuna dago gainerako arau-hauste arinetan.

Araua urratzen da modu larrian, besteak beste, erretzeko lekuak egokitzen badira debekatuta dagoen lekuetan; debekatuta dagoen lekuetan erretzen uzten bada; edo erretzea debekatuta dagoen leku baten erretzeagatik hiru aldiz urratu bada legea. Kasu horietan eta gainerako arau-hauste larrietan, 601 eta 10.000 euro arteko isunak jasan daitezke.

Markesinetan ere ezin da erre

Aurreko legeak ezartzen zuen debekua zabaldtu egin da hedadura guztietako tabernetara, ospitale eta osasun-zentroen eremu osora (Debagoieneko Ospitaleko sarrerako hautsontziak kendu egin dituzte), gizarte-arreta zentroetara, aisiguneetara, jai-aretoetara, autobus geltoki itxietara eta aireportuetara. Horrek nahasmena sor dezake:

adibidez, autobus-markesina bat espazio itxia da, aire zabaleko gunetzat jotzen delako estalita ez dagoen edozein leku, edo, estalita egonda, bi pareta edo muga horizontal baino gehiago ez dituen. Umeendako aisiguneen eremu osoan ere ezingo da erre, nahiz eta aire zabalean egon. Ospitaleei dagokienez, bakoitzak zehaztu beharko du bere eremua.

Lantokietan ezin da erre, ez eta norbere bulegoan ere, nahiz eta itxia egon, publikotzat jotzen delako. Zalantzak pizten dituen beste leku bat norbere autoa da. Hor erre daiteke, eremu pribatuztat jotzen delako. Dena dela, EAEn Espainiako legea egokitzen denean, beste muga bat ezarri nahi da: adingabekoak doazen autoan erretzeko debekua.

Kirol, gastronomia edo kultura elkarreetan ere ezin da erre, publikoak baldin badira, nahiz eta dirulaguntza publikorik ez jaso. Pribatuak baldin badira, bakoitzak erabaki beharko du.

Kartelak, derrigorrez

Taberna, jatetxe, kiroldegi, frontoi, ikastetxe... debekua indarrean dagoen leku guztien sarreran, debekua modu garbian adierazi beharko da, iragarki ofizial batekin; ez iragartzea arau-haustea da. Jaurlaritzak www.euskadi.net/tabakoa webgunean dauka erabil daitezkeen kartel batzuk.



Kartel ofizialetako bat. | E.J.

Lurruna ere botatzen du

Zigarro elektronikoa da bizioa kendu gura duten erretzaileendako laguntza berriena. Azkoaga farmazian dioskutenez, "askok opari gisa erosi dute Gabonetan".

Orokorrean, aurten produktu lagungarri bila "beste urte batzuetan baino jende gehiago" joaten ari dela esan digute.



Zigarro elektronikoa. | L.K.



Anton Elortza oñatiarra tabernan iragarkia ipintzen. | IRATI GOITIA



Berogailuaren ondoan erretzen. | LEIRE KORTABARRIA



Eusebio tabernako bezero bat, kanpoan erretzen. | ARRITXU BARRUSO

ESANAK

"Ohituta nago kalean erretzera; hala ere, lege gogorregia da. Ez dit uzten lagunduko"

HERRITARRA

"Hasieran, legea oso gogaikarria da, baina hobeto pentsatuta, ondo dago"

HERRITARRA

"Langileondako, osasun aldetik, ondo dago; baina muturrera joan direla iruditzen zait"

JUAN CARLOS DAVILA | TABERNARIA

"Legea ez da egin jendea hotzak egon dadin, jendeak erretzeari laga diezaion baizik"

OSCAR ARDILA | TABERNARIA

"Tabernetako kea umeendako txarra baldin bada, elkarte gastronomikoetako ere txarra da"

ANTON ELORTZA | OSTALARIEN ORDEZKARIA

"Gipuzkoako ostalariok ez dugu bat egin tabako-makinak kentzeko deiarekin"

ANTON ELORTZA | OSTALARIEN ORDEZKARIA

Gripe sasoia aurreratu egin da eta Gabonetatik jende asko dabil gaixo

Debagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuetan jende asko artatzen dabilta abendu bukaeratik joan den asteburura arte; asko gazteak dira

IKER BARANDIARAN | ARRASATE

Jende asko ibili da Gabonetan Debagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuetan bueltaka. Horren arrazoia da batek baino gehiagok gripearen sintomak edo antzekoak dituela: burukomina, sukarra, eztula, mokoak, muskuluetako mina eta beste.

Debagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuetan jakinarazi digute gripe sasoia urtarrilean hasi ohi dela eta otsailera arte irauten duela. Aurten, baina, Gabonetan hasi dela diote; eta horregatik, jende gehiago dabil gaixo.

Gabonetan, jendez lepo

Ospitaleko arduradunek azaldukoaren arabera, Gabonetatik urtarrileko bigarren astera bitartean aspaldian baino jende gehiago hurbildu da larrialdietara; eta horietako asko gazteak izan dira. "100dik gora pertsona etorri diren egunak izan ditugu, eta horietako asko gripearen gripearen antzeko sintomekin, gainera. Abenduaren 24, 25 eta 31, Urteberri eguna eta urtarrilaren 9a izan dira jende gehien izan dugun egunak".

Hori da Ospitaletik nabarmendu duten gauzetako bat; aurtengripen sintomak dituzten artean gehientsuenak gazteak direla, 24 eta 40 urte artekoak.



Jende askok jo du Debagoieneko Ospitaleko larrialdietara. | AMAIA TXINTXURRETA

Larrialdia neurtu

Horrez gain, larrialdi zerbitzuetatik ohartarazi dute jende askok bertara jotzen duela gripe edo gaixotasun larririk izan barik. "Badira medikuarengana etorrita zazpi egunetan eta norbere etxean astebeteetan sendatzen diren gaixotasunak ere".

Hala, medikuek jakinarazi dute gripearekin, honako sintomak izan ohi direla: arnas infekzioa, muskuluetako mina, beherakoa, mokoak, eztula eta beste. Dena den, argitu dute badela jende asko horietako sintoma batzuk dituenak, baina griperik ez duena.

Aholkuak

Halako gaitzen bat duenarentzat honako aholkuak eman dizkigute: sukarra badu, aspirina edo antzekoak hartzea; ur dezente edatea, besteen ezuletatik aldentzea eta inolako zalantzarik izanez gero, familia medikuarengana jotzea.

Etorkinek botoa emateko izenematea, 15era arte

IRATI GOITIA | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritza gida bat banatzen hasi da, etorkinek maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan bozkatu ahal izateko bete behar dituztenak jasotzen dituena.

Argitalpen horretan zehazten denez, zapatuan, hilaren 15ean, bukatuko da boto eskubidea aitortzen duen erregistratze aldia. Botorako eskubidea izango dute Europar Batasunetik kanpo egonik, Espainiako Estatuarekin udal hauteskundeetarako hitzarmenak egin dituzten herrialdeetako nazionalitatea duten herritarrek. Honako hauek dira herrialde horiek: Bolivia, Txile, Kolonbia, Ekuador, Paraguai, Peru, Norvegia eta Zeelanda Berria.

Bete beharreko baldintzak

Interesatuak honako baldintzak bete behar dituzte: hauteskunde-errolan erregistratu baino lehen, gutxienez aurreko bost urteetan Espainiako Estatuan erregulartasunez eta etengabe bizi izana, Norvegiako herritarrek salbu, hauek nahikoa dute hiru urterekin.

Euskadiko etorkinen elkarrekin guztietan banatu dute gida, baina norbaitek interesa badu, 901 10 19 00 telefono zenbakian ere eska dezake informazioa.

Bi pertsona atxilotuta, lapurreta saiakeragatik

I.B. | ARRASATE

Joan den astean, hilaren 4an, Ertzaintzak bi pertsona atxilotu zituen Arrasaten lapurreta egiten saiatzeagatik.

Atxiloketa Arrasateko merkatalgune baten gertatu zen, saltokiko arduradunak konturatutuan bi pertsona ordaindu gabe generoa eramaten ahalegintzen zebiltzela. Hain zuzen ere, 18:00ak aldera, erosketa orgatxoan telebista birekin eta beste aparailu batzuekin beteta zeukaten bi lagunak ordainketarako kaxen gunea arrapaladan zeharkatu zuten, gelditu barik. Gertatutakoaz jabetuta, merkatalguneko segurtasun langileek bi lagunak pasilloetan geldiarazi zituzten, Ertzaintzara deitu eta polizia atxilotu zituen arte.

la 19 milioi lagunek erabili dute Lurraldebus zerbitzua 2010ean, %4ko hazkundearekin

Txartela kutzazainetan zein Interneten kargatu ahal izango da apirilean



Lurraldebuseko zerbitzua ematen duen autobus bat Elgetan. | GOIENA

I.B. | ARRASATE

Lurraldebus lotuta dauden hiri eta herri arteko autobus konpainiek guztira 18.900.000 bidaiari garraiatu dituzte 2010ean; hau da, 2009an baino 770.000 lagun gehiago.

Lurraldebus zerbitzu publikoak dituen 200 autobusek Gipuzkoako herriak elkarrekin lotzen dituzte eta eskualdeak EAEko hiriburuetara hurbildu. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa diputatu Arantza Tapiak azaldu du erabiltzaileen erantzunak "berretsi" egin duela Diputazioa egiten dabilen ahalegina, lineako autobusen "ibilbideak eta maiztasunak indartzen, autobusak berritzen, eta geraleku eta informazio sistemak modernizatzen" egindako ahalegina.

Txartel bakarra

Txartel bakarrari dagokionez, gaur egun 198.000 txartel daude indarrean, iaz baino 40.000 gehiago. Horrez gain, Tapiak jakinarazi du linea horietan egin diren joan-etorri guztien %72 ordaindu direla txartelarekin; eta apiriletik aurrera txartelean dirua sartzeak aukera egongo dela kutxazainetan zein Interneten.



Oñatin bost edukiontzi jarri dituzte; irudian, Olakua auzoan jarri dutena. | A.E.

Ipini dituzte olio jasotzeko makinak herri gehienetan

Makinak ipini eta ontziak banatu dituzte; Bergaran gaur eta bihar egingo dute lan hori

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak etxeko olio jasotzeko zerbitzu berria jartzen dihardu bailara osoan. Horretarako, olio jasotzeko edukiontziak ipintzen dabilta, guztira 21 makina.

Dagoeneko Elgetan, Aretxabaletan, Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Oñatin eta Antzuolan ipini dituzte makinak; gainera, ontzi jakin batzuk behar dira olio birziklatzeko. Horiek ere dagoeneko banatu dituzte etxerik

Makinak herrietan

ARRASATE 11 makina: Udala plaza, Garagartza, Maiatzaren Bata plaza, Zaldibar, Ignazio Zuloaga, Erguin, Legargain, Bedoña, Gesalibar, Musakola eta Eroski.

BERGARA 7 makina: Osintxu auzoa, Angiozar auzoa, Merkatu plaza, Matxiategi, Zubiaurre kalea, Bolu eta Ibargarai hiribidea.

OÑATI 5 makina: Apaolaza kalea, Lizaur kalea, Merkatu plaza, Olakua auzoa eta Portu kalea.

ESKORIATZA 3 makina: Santa Ana auzoko sarrera, Intxaurtxueta eta Aranburuzabala 54 kalea.

ARETXABALETA 3 makina: Gernika plaza, Nafarroa kalea eta Otalora 19 kalea.

ELGETA Makina 1: Berraondokoa.

LEINTZ GATZAGA Makina 1: Dorletarako bidea.

ANTZUOLA Makina 1: Frontoi bidea.

etxe. Gaur eta bihar, astelehena eta martitzena, Bergaran jarriko dituzte makinak, eta Bergarako etxeetan ere ontzi bereziak banatuko dituzte.

Arrasaten, martxoaren ezker

Bailara osoan ipini dituzten makinak Arrasaten zeudenak bezalakoak dira. Eko3r enpresa kontratatu du Mankomunitateak lan hori egiteko. Arrasaten iaz otsailan jarri zituzten 11 makina eta martxoaren ezker martxan dago zerbitzua.

Sukaldeko olio bakarrik

Banatu duten ontzi bereziak sukaldeko olio jasotzeko bakarrik balio du. Erabiltzaileak egin behar duena da: ontzian erabilitako sukaldeko olio bota (ez da olio beroa isuri behar) eta behin ontzia beteta dagoenean edukiontzira

eraman. Makinan (irudikoa bezalakoa) dagokion lekuan sartu behar da ontzia eta makinak berak beste ontzi huts eta garbi bat itzuliko du.

Olio birziklatuta lortzen diren ingurumen onurak dira: ura kutsatzen duen hondakinaren deuseztapena, araztutako uraren berrerabilpena, degradazioa murriztea eta dependentsia energetikoa murriztea.

Puntu berdea desagertuko da

Zerbitzu berri horrekin batera, 2011n Puntu Berde Mugikorra desagertu egingo da. Hori dela eta, Mankomunitateak herritarren laguntza eta elkarlana eskatu du. Hain zuzen, eskatu dute urtarilean olio poteak eta bestelakoak ez uztea Puntu Berde Mugikorraren zerbitzua eskaintzen zen lekuetan.

Aurrekontu kontinuitateak onartu ditu Mankomunitateak, aho batez

lazkoarekin alderatuta aurtengo aurrekontua jaitsi egin da

A.E. | BERGARA

Krisi garaia markatutako aurrekontua onartu du Debagoieneko Mankomunitateak 2011rako, eta, ondorioz, %15 txikiagoa izango da: 8 milioi eta erdi. "Garai gogorak bizi ditugu, baita udaletan ere. Egoerak markatutako aurrekontua eta aurrekontu kontinuitate dela esan daiteke", azaldu du Ino Galparsorok, Mankomunitateko presidentea. Aurrekontuaren jaitziera azaltzeko arrazoi nagusia da hiltegia ez dela gehiago Mankomunitatearen ardura izango; gainera, Mankomunitateko udalen ekarpena %7 txikiagoa izango da.

Inbertsio nagusiak

539.600 euro bideratuko ditu inbertsioetarako Mankomunitateak. Inbertsio nagusia Epeleko zabor-



Epeleko zabortegia. | GOIENA

tegia egingo dute: 255.600 euro bideratuko dute horretarako. Bestalde, San Balerion, zabor bilketako kamioiak gordetzen dituen eraikina hobetzeko 50.000 euro bideratuko dituzte.

Atez ateko bilketa

Aurten Antzuolan jarri behar duten atez ateko zabor bilketa-

rekin lotuta, hainbat inbertsio egingo dituzte. "Zabor bilketarekin eta atez atekoarekin lotuta, kamioi berri bat erosiko dugu", azaldu du Galparsorok. Horretarako, 120.000 euro bideratuko dute. Atez atekoarekin lotuta, gainera, beste bi inbertsio ere egingo dituzte: 15.000 euro piboteak eta elementu euskarriak

DATUA

%15

TXIKIAGO

Aurtengo aurrekontua izango da: 8.506.372,38 euro. Iazko aurrekontua baino %15 txikiagoa izango da aurtengoa.

ESANAK

"Egoerak markatutako aurrekontua izango da"

INO GALPARSORO | PRESIDENTEA

erosteko eta beste 15.000 euro edukiontzi txikiak erosteko.

Mundumira

Turismoan, aldiz, erdia pertsonal gastuetarako izango da eta beste erdia Mundumira jaialdirako. 2011n Elgetan egingo den jaialdirako 76.600 euro aurreikusten dira, iaz Antzuolan egindako Mundumirarako baino 5.000 euro gutxiago.

Zerbitzu orokorretarako, bestalde, 1.145.349,38 euro erabiliko dira. Iaz baino %4,25 gutxiago izango da.

10 milioi euroko eskaria jaso dute Aretxabaletan

A.E. | ARETXABALETA

Mondragon Assembly kooperatibak bere historiako eskaririk handiena lortu du: eguzki panelak muntatzeko lanak automatizatzeko 20 *tabber* & *stringer* makina egingo dituzte Txinako enpresa batendako. Eragiketa horren zenbatekoa 10 milioi euro baino zertxobait gehiagokoa da. Makinak 2011ko azarorako egongo dira lanean Txinako enpresan.

Enpleguak sortuko dira

Tabber & *stringer* ekipoak Mondragon Assemblyk Aretxabaletan duen lantegian egingo dituzte. Hori dela-eta, urteko lehen seihilekoan jarduera nabarmen handituko da. Proiektu hori esleitu izanari esker, Aretxabaletan enplegu berriak (12 pertsona inguru) sortuko dira, inguruko tailer laguntzaileen kasuan jarduera handituko da eta Txinan salmenta ondorengo egitura jarriko dute abian. 160 lagunek osatzen duten Assemblyko langile taldea.

Laurehun langabe gutxiagorekin bukatu da urtea Debagoienez

Langabe gehien Arrasatek eta Eskoriatzak dituzte, baina datua gehien hobetu dutenak ere badira



Langabeak, Espainiako Enplegu Zerbitzuak antolatzen zuen ikastaro baten izena ematen. | ARTXIBOA

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Debagoienak langabe gutxiagorekin hasi du urtea. 2009ko eta 2010eko abenduko datuak alderatuta, ikusiko dugu iaz puntu bat baino gehiago txikitu zela langabezia tasa urte bukaerarako: 9,44 zen 2010eko abenduan; 2009koan, 10,71. Bestela esanda, ia 400 langabe gutxiago zenbatu ditu Debagoienez Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak.

la denak, hobeto

Debagoienez, lan barik zeuden 2.926 pertsona zenbatu dituzte urte amaieran. Datu txarrena Arrasatek dauka: berak dauka langabezia handiena (10,79 da bere tasa; 1.248 langabe). Segidan daude Antzuola (10,11; 92 langabe), Bergara (9,44; 677 langabe), Eskoriatza (9,43; 196 langabe), Aretxabaleta (9,33; 301 langabe), Elgeta (7,93; 39 langabe), Oñati

(6,75; 365 langabe) eta Leintz Gatzaga (6,02; zortzi langabe). Hori bai; 2009an baino datu hobekiaz izan dituzte herri guztiek, Elgetak izan ezik. Eta Arrasatek eta Eskoriatzak izan dute portaera onena: ia bi puntu txikitu da langabezia tasa bakoitzean.

Eskualdean, oro har, iazko azarotik abendura egoera ez zen asko aldatu, apur bat hobera egin bazuen ere -9,46tik 9,44ra-. Atze-

rago begiratuta, iazko uztailetik jaso den daturik onena da; 9,28 zen orduko tasa.

Industrian, lan gehiago

Hego Euskal Herri osoan joera bestelakoa izan da, eta lau lurraldeetan handitu egin da langabe kopurua. Hala, 178.972 langabeekin bukatu da urtea.

Gipuzkoan, zehazki, 39.449 langabe zeuden 2010eko abenduan,

eta langabezia tasa %2,48 bakarrik igo zen 2009ko abendutik. Adituen esanetan, iaz zertxobait hobetu zen enplegua, batik bat industrian lan handiagoa egon zelako. Hala ere, gaineratzen dutenez, kontratu gehienak aldi baterako dira, eta horrek esan nahi du hobe-kuntza sakonik ez dela izan.

Lanbideren bulegoa

EAEn erregistratutako langabeak Lanbidek, Euskal Enplegu Zerbitzu sortu berriak kudeatuko ditu aurrerantzean.

Lanbideren egoitza da Arrasateko enplegu bulegoa (lehenago INEM). Hango arduradun Elena Mondragonek gogorarazten duenez, "herritarrek ez dute aldaketarik igarriko". Izan ere, Lanbideren bulegoan langabeziak ordaintzen jarraituko dute, eta hara joan behar da langabe gisa norbere burua erregistratzeko.

LANGABEZIA DEBAGOIENEAN

	ANTZUOLA		ARETXABALETA		ARRASATE		BERGARA		ELGETA		ESKORIATZA		GATZAGA		OÑATI		DEBAGOIENA	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010
Langabeak	95	92	353	301	1.444	1.248	722	677	35	39	234	196	13	8	423	365	3.319	2.926
Tasa	10,44	10,11	10,94	9,33	12,48	10,79	10,06	9,44	7,11	7,93	11,26	9,43	9,77	6,02	7,83	6,75	10,71	9,44

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

Argindarra, gas naturala eta butanoa garestiagoak dira urtarrilaren 1a ezkerro

Familia bakoitzak urtero ia 40 euro gehiago ordaindu beharko du argindarra

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Urte berriarekin batera, argia, gas naturala eta butanoa garestitu egin dira. Argindarraren igoera da zeresan handien ematen ari dena. %9,8 garestiagoa da urtarrilaren 1a ezkerro, eta, ondorioz, erabiltzaile bakoitzak hileroko 3,2 euro gehiago ordaindu beharko ditu, batez beste; urtero 38,4 euro gehiago, Energiako Estatu Idazkaritzak aditzera eman duenez. Azken hiru hamarkadetan egon den igoera handiena da berau.

Gas naturala %3,9 garestiagoa da orain eta butanoa, %3,13 garestiagoa. Butano bonbona 13,19 euro kostatzen da gaur.

Euriborrari dagokionez, abenduko Euriborrak urteko hipoteken garestitzea ekarriko du. Hala, 2009ko abenduan baino 0,28 puntu gorago zegoen Euriborra: ondorioz, hipoteka abenduan sinatu



Gas butanoa %3,13 garestiagoa da aurtun. | GOIENA

zutenek urtean 240 euro gehiago ordaindu beharko dute.

Autobideak, berdin

Garraioari dagokionez, autobusen kasuan esan behar da Lurralde-buseko tarifek urtea hasi bezala bukatu dutela, prezio handitzerik

gabe. Diputaziotik jakinarazi digutenez, aldaketarik egotekotan, apiriletik aurrera izango da hori. Autobideen kasuan ere, AP-1 eta A8 autobideetako Gipuzkoako tramuetan bidesariak ez dira igo. Arabako tramuetan, KPIaren igoera ezarri zaie bidesariei.

Erretiratuak, aurtun kaltebera prezioak handituz gero

L.K. | BERGARA

Erretiratuak eta funtzionario publikoak dira aurtun prezioak handitzearen aurrean babes txikiena duten bi multzo handienak. Arrazoi nagusia da soldata eta pentsioak izoztu edo murriztu egin direla.

Espainiako Gobernuak larrialdi neurri batzuk onartu zituen iaz, 2011. urteari begira. Horien ondorioz, funtzionarioek gutxiago irabazten dute hileroko: 36 eta 220 euro gutxiago artean. Bestetik, erretiratuen pentsioak izoztuta daude aurtun, eta ez dira handituko.

Arlo pribatuko enplegatuek ere erosketa-ahalmen txikiagoa dute iaztik. Espainiako Lan Ministerioaren datuen arabera, 2010eko urtarril eta uztailetan hitzartutako soldata handitzea %1,29 izan da; baina KPIa %1,8 izan zen epe hartan.

LABek grebarako dei egingo du bihar elkarretaratzean

L.K. | BERGARA

Euskal Herriko sindikatuek -ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK, EHNE eta HIRU- erregistratu dute Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan urtarrilaren 27rako greba orokor deialdia. Espainiako Gobernuak egindako pentsioen erreformaren kontrako protesta gisa deitu dute. Biharko, martitzena, LAB sindikatuak kontzentrazioa deitu du Arrasateko Seber Altube plazan, 12:00etan. Pentsioen erreformaren aurkako jarrera azalduko dute bertan, eta grebarako deialdia egingo dute.

ELAko Mikel Novalek haxe esan du: "Euskal langileok ez dugu onartzen pentsioak murriztu behar direnik. Ez dugu onartuko erretiro adina atzeratzea, eta ez dugu onartuko pentsioak kalkulatzeko sistema aldatzea kopurua baxuagoa izateko".

ZABALIK

LARRAITZ UGARTE
'http://goiena.net/iritzia/'



Urtarrileko hitzorduak

Urte berri on. Pasa dira Gabonak, oparotasuna eta relaxa malenkoniarekin eta alaitasun neurrigabearekin tartekatzen diren egunak. Baina urtarrilak zoritxarrez linbotik jaitziaz eta errealtatearekin aurrez aurre jartzen gaitu beti, eta ezin da aurrean dugun urte guztian erantzukizunik hartu gabe linboan jarraitu. Izan ere, urte hasieran ETak ekintza armaturik ez egin arren, ezker abertzaleak bide demokratikoen aldeko erabaki irmoa hartu arren, 735 euskal herritar espetxean eta ehunka deserrian daudela eta batzuentzat normaltasun politikorik ez dagoela gogorarazi digu iragan larunbatean buruturiko manifestazio erraldoiak.

Espainiar eta frantziar Estatuak kartzeletako lokutorioetan ez zen euskararik entzungo oraingoan, grabagailu eta mikroek ohi baino lan gutxiago izateagatik harridura erakutsiko zuten, urdinekoen mendeko goseak astebetetz atzeratua behar ko zuen izan. Boceguillasen hamaiketarik ez. TGVan Eiffel dorrea edo Mickey Mousen argazkiekin itzuli nahi duten turistak soilik. Beti behar lukeen lez. Guztia Egin dezagun urratsa. Eskubide guztiekin Euskal Presoak Euskal Herrira-ren leloarekin Bilboko kaleak jendez lepo betetzeko.

Hil honek badu bigarren zita garrantzitsu bat ere: urtarrilaren 27rako euskal sindikatuen gehiengoak greba orokorra deitu du pentsioen erreformaren aurka. Batzuek krisialdi egoeran grebak egitea txarra dela diote; gehienok, ordea, badakigu ez dugula alternatibarik: edo inposatzen digutena onartu edo borrokatu, topikoa dirudien arren, borrokarik gabe ez baitago aldataririk. Langileen barrikadarik gabe ere gatazka sozialak bere horretan dirauelako.

Hauxe da 2011. urte honi eskatzen diodana: guztiok Euskal Herrian konpondu gabeko gatazka politiko eta soziala dagoela barneratu eta hauei aurre egiteko borrokarako grina eta anbizioa izan dezagula.

USTEAK USTE

ENEKO AZKARATE | 'eazkarate@goiena.com'

Etorkizuneko Bergara

Hamar urte barru, zelako Bergara nahiko genuke? Erantzuna topatzen saiatuko da Bergarako Udala, herritarren laguntzarekin, ondorengo hilabeteotan. Horretarako, batzar irekiak deitu ditu. Alkateak esan du Udalak ez duela jakin epe luzera begiratzen eta etorkizunerako estrategiak planifikatzen. Herritarrekin batera etorkizuna planifikatu nahi izatea txalotzekoa da. Baina, udalbatza osatzen duten herri ordezkariarekin adostasuna lortzea da agintariaren zeregina, herriaren etorkizuna jokoan dagoenean. Alderdi politikoak dira-eta herria gidatu behar dutenak. Eta ez dakit helburu hori lortu duen alkateak. Oposizioa ez dut sintonia berean ikusten agintaldi amaiera honetan.

KALE INKESTA

Zer iruditzen zaizu olioaren birziklatzeko edukiontzia jartzea?



MIGUEL MANEGAS BERGARA

"Oso ideia ona iruditzen zait. Hartzekoa da Bergaran orain arte ez jartzea. Beste edukiontzi bat gehiago izan behar da".



INMACULADA BEGIRISTAIN ANTZUOLA

"Oso ondo ikusten dut. Antzuolan ez dugu edukiontzirik oraindik; kamioi bat etorri behar izaten da egubakoitzero".



DOMINGO LASKURAIN BERGARA

"Arazo handia da, jende asko fregaderatik botatzen du-eta olioaren. Nire garaian errekek garbi zeuden, baina egun...".



GEMMA ROJA BERGARA

"Oso ondo iruditzen zait eta edukiontzia izateak jende gehiago bultzatuko du birziklatzera. Horrela askoz erosoagoa da".

HANDIK ETA HEMENDIK

Azken Portu

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Basoerdi batzuk hartzera biltzen diren lagunek komunikatu behin eta berriro atzeratua dute mintzagai. Etzertzerakoan, artean gaia -edo egarria- nonbait agortu ez, eta txikiteroetako batek beste taberna bat seinalatzen du: "E, aizue, azken portu egingo diagu hor!".

Tabernan sartzen dira. Azken portu egitearena bota duenarentzat eta espresio hori entzuten duenarentzat, berria da espresioa.

Lehendabiziko aldiz entzuna.

Baina bati natural irten zaiona, natural entzun -eta ulertu- dute besteek.

Inork ez du ezer galdetu, bakar batek ere ez du harridurarik erakutsi, nahiz ordu arte denek *espuela hartuko al dugu?* galdetzen zuten.

Hizkuntzaren sena manifestatu da baten ahotik, besteen belarrietatik.

Eta basoak eskuetan daudela, lagunetako batek galdetzen du komunikatu doutsuaren egileek ere noiz egin behar duten azken portu.

Elkarri begiratzen diote. Isiltasun erabatekoa egiten da. Basoak jasotzen dituzte.

Boliviako haur meatzariei laguntzeko aukera bat

Mikel Iturria
http://eibar.org/blogak/iturri/

Mineritos.org, Ander Izagirrek eta beste batzuek martxan jarritako ekimena.

Duela hamar bat egun Ander Izagirreren mezu bat jaso nuen gaur zuekin konpartitu nahi dudana.

"Askok ezagutzen dituzue Boliviako meatzetan lanean ari diren haurrei buruz kontatu ditugun istorioak. Orain, ekimen bat sortu dugu asko gustatzen zaigun proiektu bat laguntzeko (Escuela Robertito), Potosiko Cerro Rico inguruko meatze-ahoretan bizi diren haurrak hartzen dituen eskola, hain zuzen ere. Eskolak ume hauek laguntzen ditu hezkuntza, elikadura eta osasun kontuetan. Eta, batez ere, laguntzen die prestakuntza emanez eta dituzten ahalmenak

indartuz autonomo bihurtzeko, beste lanbide batzuk bila ditzaten meatzegietatik at. Gustatzen zaigu ez izatea asistentzia puntuala, baizik eta haurren autonomia etorkizunari begira lantzen duen eskola izatea, haurrek beraien kabuz bizimodua aurrera ateratzen baldintza duinetan".

Gauza gehiago kontatu zituen *Ayuda para los mineritos* apuntean.

Egun batzuk pasa ondoren, mezu berri bat jaso nuen. Kasu honetan, Anderrek zioen abian zela jada *mineritos.org* webgunea.

Atera dituzten kalkuluen arabera ume baten hileko eskolaratze kostua 10 eurokoa da.

Eta pentsatu dut agian gaur kontzientzia txarra izan dezakezuela atzo jan eta edandako guztiagatik (ajea ahaztu gabe, noski) eta egokia izan daitekeela urtea ekintza on batekin hastea eta horregatik eskaini diot gai honi 2011ko nire lehen apuntea.

Anderrek dio diru guztia Potosira joango dela, ez dela bidean ezer geratuko. Eta nik sinetsi egiten diot.

Sartu, mesedez, *mineritos.org* webgunean. Eskerrik asko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Julen Iriondo
Maketazioa Kega Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zieritza Martín, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 12
papera@goiena.com


ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Fax: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Fax: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 1697-3542
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Jabier Arregi | Txakolingilea

"Txakolina kanpotik ekartzen badugu, besteok ere txarra egingo dugu"

- ▶ Jabier Arregik Kataide Txakolina egiten du Musakolako Egi-Haundi baserrian
- ▶ Barnealdeko txakolin onena egiten dutela dio; eta Kataide "munduko onena" ei da

LANDER MUÑAGORRI | ARRASATE

Arrasateko Musakola auzoan dago Egi-Haundi baserria, eta bertan bizi da Jabier Arregi txakolingile arrasatearra. Aurtengo uzta ona izan ei da, baina zenbat litro egiten dituen ez digu zehaztu nahi izan. Hala ere, hiru hektarea mahasti dauzka baserri aldamenean, eta Kataide Txakolina izen komertzialarekin merkaturatzen du edaria. Urtetako esperientzia bizkar gainean, bere izerdiek jarraipena izango dutela ziur da. Izan ere, hurrengo belaunaldiak horretan jarraituko duela uste du.

Noiz hasi zinen txakolina egiten?

1989 urtean sartu genituen lehen landareak probarako, eta gure lehen helburua proba egitea izan zen, ea hemen txakolina egitea bazegoen edo ez. Aurretik nire osaba Kataide nire jaiotetxean saiatu zen txakolina egiten, baina ez zuen lortu. Ondoren, ni ere saiatu nintzen han bertan, eta nahiko ongi, baina, hala eta guztiz ere, ez nion kasu handirik egin. Hona etorri ginenean, lur zatitxo baten mahatsa jartzea pentsatu nuen, Getariako estilora, parran. Oraindik hala jarraitzen dut.

Mahasti gehiago duzu orain, ordea...

Etixerako hasi nintzen egiten, hasierako helburua horixe bera zen-eta. Ondoren, jendea txakolina eskatzen hasi zitzaigun, eta kanporako egiten ere hasi ginen. Orduan, hektarea bat mahats gehiago sartu genuen, eta ondoren beste bat. Landare-sarean jarri genituen ondorengo sail horiek. Parra erara jarritz gero, mahastiak fruitu gehiago ematen du, baina lan handiagoa ere ematen du. Nik nahiago dut landare-sarea, traktorearekin biltzeko aukera ematen du-eta; parran, ordea, eskuz bakarrik. Gehiago izan arren, nekosoagoa da.

Alderik sumatzen da barnealdean egiten den txakolinaren eta kostaldekoaren artean?

Bai, guk hobea egiten dugula! [Barre]

Lurrean edo kliman ez da alderik sumatzen?

Begira, esan dizudan bezala, parran egin edo lore-sarean egin, gure terrenoetan bertan ere aldea daukagu. Orduan, hemendik Getariara ere pentsatu aldea egongo dela... Horrek ez du esan nahi hangoa hobea edo okerragoa denik, askotan esaten dute-eta Getarian hobea egiten dela, bai-



Jabier Arregi, Egi-Haundi baserrian duen upategian. | LANDER MUÑAGORRI

na hori ipuina da. Eguraldiak zerikusia du, bai. Esaterako, hemen mahatsa esnatzen han baino hamabost egun lehenago hasten da, baina jasotzeko garaian, biak batera heltzen dira. Hemen paraje epelagoa delako hasten da lehenago esnatzen, baino han eguzki gehiago egiten du eta horregatik heltzen dira biak paretsu. Hala ere, esan dizudan moduan, gurea askoz hobea da [Barre].

Burgos inguruan txakolina egiten ere hasi ei dira, eta orain izendapenaren barruan sartu nahi dute...

Lehenago ere han egiten zen txakolina, baita Santanderren eta Sorian. Txakolina leku askotan egin izan da, baina, azkenean, egiteari utzi egin zioten bere garaian. Errioxako ardoa edate-

ko hobea da, eta horretara ohitu zen jendea bere garaian. Horretaz gain, txakolina egitea askoz ere nekosoagoa da. Pentsa, aurrean hamahiru bider bota behar izan diegu sulfatoa gure mahatsei, eta Getarian ere bota dute...

Eta zer iruditzen zaizu horiek guztiek izendapenaren barruan sartu nahi izatea?

Niri barregarri samarra iruditzen zait. Ez da ez luketelako hartuko, baina orain txakolinean sartzea... Txakolinak prezio altua dauka beste ardoekin alderatuz gero. Baina horrek ez du esan nahi hurrengo urtean prezio horretan egongo denik. Gainera, probatu dudun Burgosko txakolina oso txarra da, zakarra eta garratza da. Hor inguruan hemengo pertsonaren bat ibili da txakolina

egiten, eta merke egin nahian dabil, hemen garesti saltzeko. Alde horretatik doazela iruditzen zait niri.

Orduan, deslokalizazioa txakoline- ra ere iritsi da?

Bai, nik uste dut baietz. Kalitate txarrekoa, eta nik uste dut hemen jendeak ez duela hori erosiko. Orain, horrek ez du esan nahi ikasiko ez dutenik, ikasi egin dezakete-eta. Lehenengo, mahatsa aldatu egin beharko dute, eta hemengo modukoa jarri. Txakolin ona egingo luketenak, adibidez, errioxarrak izango lirateke.

Beraz, zer litzateke egokiena?

Hemen gertatzen dena da batek gauza bat egiten badu, esaterako patata sartu, denak patata sartzen hasten garela. Zona bakoitzak gauza batera dedikatu beharko luke. Egin gauza onak, baina, esan dizudan moduan, elkar izorrratu barik. Azkenean, hori gertatzen ari baita. Kanpotik ekartzen hasten bagara, gainontzekoak ere txakolin txarra egiten hasiko gara ziurrenik.

Eta zuen uzta nolakoa atera da aurretik?

Esan dizut lehenago ere, ona, munduko onena!

Zenbat litro egin dituzue?

Artzain bati galdetu omen zion behin zure gisako batek: "Zenbat ardi dituzu?". Hark erantzun: "Zenbat uste duzu?". Eta: "100?". Artzainak: "Hortxe, hortxe". Hau ere berdina da. Getarian egiten dituzte 14.500 kilo hektareako, baina hori absurdoa da, astakeria. Gaur har daiteke kopuru hori, baita gehiago ere, baina datorren urtean ez duzu kopuru hori hartuko. Hau ez da industria bat, hau baserri bat da. Errusian bost urteko planak egiten zituzten, bazekitelako urte batetik bestera gauzak aldatu egin zitezkeela.

Orduan, bost urteko planak egiten hasi behar dugu?

[Barre] Beharko litzateke, agian, bai. Aurrean, hala ere, uzta ona jaso dugu, baita iaz ere. Orain dela hiru urte, ordea, uzta txarra izan zen; hortik bost urteko planaren ideia hori... Izan ere, lurra-ri asko eskatzen badiozu, lehen urtean erantzungo dizu, baina hurrengoan, agian, ez du erantzungo.

"Txakolina kanpoan merke egin eta garesti saltzen saiatzen ari dira"

"Burgosko txakolina oso txarra da, mahatsa aldatu egin beharko lukete"



LANBIDE HEZIKETA OÑATIKO INSTITUTUAN

2011

%100
DIRUZ
LAGUNDUTA



LANGILE ETA LANGABETUENTZAKO IKASTAROAK

EUSKAL HERRIKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN SISTEMARI LOTUTA (KATALOGO MODULARRA)

IKASTAROAK	ORDUAK	AURREIKUSITAKO DATA
MEKANIZAZIOA		
KROKIZAZIOA	40	2011 / 01 / 24
METROLOGIA – EGIAZTAPEN DIMENTSIONALA	40	2011 / 02 / 14
LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA	40	2011 / 03 / 14
TORNU KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA	80	2011 / 01 / 10
TORNO CNC PROGRAMAZIOA	50	2011 / 02 / 14
TORNO CNC MEKANIZAZIOA	50	2011 / 03 / 14
FRESATZEKO MAKINA KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA	80	2011 / 04 / 04
FRESA CNC PROGRAMAZIOA	46	2011 / 05 / 16
FRESA CNC MEKANIZAZIOA	50	2011 / 06 / 06
MANTENUA ETA MUNTAIA ELEKTROMEKANIKOA		
MANTENTZE MEKANIKOA	60	2011 / 02 / 28
MANTENTZE ELEKTRIKOA	80	2011 / 01 / 17
AUTOMATISMO NEUMATIKO ETA ELEKTRONEUMATIKOA	40	2011 / 02 / 14
DISEINUA		
CAD 2D - AUTOCAD	40	2011 / 01 / 17
CAD 3D - SOLID EDGE I - MOD. ETA PLANOAK	40	2011 / 02 / 07
CAD 3D - UNIGRAPHICS	40	2011 / 03 / 14
SOLDADURA		
SOLDADURA ELEKTRIKOA	55	2011 / 01 / 24
SOLDADURA MIG-MAG	80	2011 / 02 / 14
SOLDADURA TIG	80	2011 / 02 / 07
SOLDADURA OXIAZETILENIKOA	35	2011 / 03 / 16
INFORMATIKA		
MS WORD	20	2011 / 01 / 24
MS EXCEL	20	2011 / 02 / 07
MS ACCESS	20	2011 / 02 / 21
INTERNET ETA KORREO ELEKTRONIKOA	20	2011 / 03 / 14
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK		
EGUZKI ENERGI FOTOBOLTAIKOA ETA TERMIKOA	60	2011 / 01 / 31

zuazola-larraña
Oñatikoko b.h. institutua



**IZENA
EMATEKO
EPEA
ZABALIK**

IZENA EMATEKO:

Oñatikoko Institutua
Larrañako Lanbide Heziketa Egoitzan
San Lorenzo auzoa z/g
Tel.: 943 78 21 50
09:00-13:00 / 13:30-17:30
www.onati.net



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Enrique Ullibarriarana | Aramaio alkatea (1987-1991)

- ▶ EAJren eta EAren banaketa bertatik bertara bizi izan zuen, eta EAtik aurkeztu zen
- ▶ Babes handia izan zuen udal hauteskundeetan; bost zinegotzi lortu zituen EAk
- ▶ Agintaldi bakarra egin zuen alkate; garbi zuen berriro ez zela aurkeztuko

"Sekula ez nuen usteko Aramaio moduko herri baten politikak horrenbeste aginduko zuenik"

XABIER URTZELAI | ARAMAIO

Orain galdetuta ere, Enrique Ullibarriaranak (Aramaio, 1961) ez du batere argi zergatik aurkeztu zen alkategai, ez du galdera horrendako erantzunik. Baina ez hori bakarrik, EAren aldeko hautua zergatik egin zuen ere ez du oso garbi: "Nik politika ez dut horren gertutik bizi, eta orduan ere ez nengoen definituta. Baina sasoi hartan, herriko kirolean nirekin batera eta bestera ibiltzen zen Julian Etxabek konbentzitu ninduen, eta halaxe aurkeztu nintzen, herriaren alde lan egiteko asmoz. Sekula ez nuen usteko Aramaio moduko herri baten politikak horrenbeste aginduko zuenik, eta hor hartu nuen lehengo kolpea".

Alkategai aurkeztu, eta babes galanta izan zenuen.

Neurri handian horregatik, ez nuen alkate kargua bertan behe- ra utzi, jende askoren babesa izan genuelako eta hor ezin genuelako kalerik egin; izan ere, lehengo hilabeteak gogorrak izan ziren niretzako. EAJ eta EA banandu, eta udal hauteskunde haietan bost zinegotzi lortu genituen guk (EA), eta bina zinegotzi EAJk eta HBk.

Herriaren alde lan egiteko asmoz hasi ginen gu, baina han politika egin behar zen, bestela ez zegoen aurrera egiteko modurik. Osoko bilkuretan lagunak nituen ondoan, baina han haserretu egiten ginen.

Zuen agintaldian burututako ze lan duzu gogoan?

Gogoan dut garai hartan udal- txean lan egiten zuten hainbat lagun modu irregularrean zebiltzala: aguazila, garbiketak egiten zituzten emakumeak... Hala, idaz-



Enrique Ullibarriarana, haren agintaldian egin ziren saneamendu lanak hasi zituzten tokian, atzean Goiko tabernako magnoliak dituela. | XABIER URTZELAI

karia zen kontratatuta zegoen bakarra, niri izugarri lagundu zidan Maritere Irasuégi -50 urte egin zituen udaletxean lanean-. Bada, langile horiek ezin zuten

"Julian Etxabek konbentzitu ninduen EAtik alkategai izateko"

"Fernando Buesa gonbidatzeagatik ika-mika izan genuen udaletxean"

modu horretan lanean jarraitu, eta herri mailan enpresa bat sortu genuen lan horiek guztiak kudeatzeko. Ez dakit ondo ala txarto egin genuen, baina egin beharreko gauzetako bat zen hori.

Urbanizazio lanak ere parean izan zenituzten.

Bai; aurreko agintaldikoek lehengo faseari heldu zioten, plaza inguruan saneamendu lanak egin zituzten, eta guri bigarren fasea tokatu zitzaigun, herriaren goiko aldekoa. Gogoan dut Goiko tabernako jabeak magnoliak nahi zituela taberna aurrean, eta hiri- gintzakoa ez zectorren ideia horrekin bat; oraindik ere hor daude magnoliak. [Barre]

Eta, sasoi hartako ika-mikaren bat izango duzu gogoan.

Udaletxean lanetan zebiltzan gure agintaldia hasi genuenean, eta osoko bilkurak-eta beste etxe baten egiten genituen. Hala, guri tokatu zitzaigun udaletxe berria inauguratzea, eta gure zalantza zen inaugurazio ekitaldira Arabako diputatua gonbidatzea ala ez gonbidatzea. Eta gonbidatu arren ez genekien etorriko zen ala ez. Bada, sasoi hartan PSE -Eeko Fernando Buesa zen diputatua, eta HBkoak haserretu egin ziren inaugurazio ekitaldira gonbidatu genuelako. Gonbidatu bakarrik ez, etorri ere egin zen. [Barre]

Agintaldi bakarra egin zenuen.

Bai, hasieratik garbi ikusi nuen hori. Eta ondoren ez dut politikarekin harreman handirik izan. Alde horretatik, baina, EAKoei

eskertu egin behar diet erabakiak hartzeko izan nuen askatasuna. Alderdiko inork ez zuen inoiz inposiziorik egin.

Zelan ikusten dituzu gaur egun Udalean agintzen dabilzan ordezkariak?

Alkatea izan ostean gauza bat ikasi nuen, postu horretan dagoenak hartzen dituen erabakiak kritikatu aurretik hausnarketa egiten. Izan ere, hor dagoenak intenzio onenarekin hartzen ditu erabakiok, nahiz eta batzuetan denon gustukoak ez izan. Ez da erraza herriko alkate izatea, 24 orduz zarelako alkate.

Orain daudenak lanerako gogo handiz sartu ziren, eta herrian igarri egin zen hori. Akaso, denborarekin denok lasaitu egiten gara.

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43

ONATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR



HERRIAK

Bidebarrikoak arduratzen dira Oñatiko Azkoagain txukun izateaz

- ▶ Orain arte Aloña Mendi elkarteak egin ditu futbol zelaiko mantentze eta garbiketa lanak
- ▶ Erabiltzaileak asko ugaritu direla-eta zerbitzu hori bere gain hartu du Udalak

MIRIAN BITERI | OÑATI

Joan den abenduaren 1a ezker du Bidebarri Enplegu Zentroa enpresak Oñatiko Azkoagain udal futbol zelaiaren zaintza, garbiketa eta mantentze lanen ardura. Kontratazioarekin batera, tokiko gobernu batzarrak erabaki du 23.210,32 eurotan (BEZa kanpo) emango diola esandako zerbitzua.

Orain arte Aloña Mendi kirol elkarteak arduratu da lan horretaz. 2007ko abenduaren 31n, Aloña Mendi elkartearen eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena sinatu zen eta bertan, besteak beste, onartu zuten esandako kirol elkarteak Ibarra eta Azkoagain kirolguneetan egiten zituen mantentze eta garbiketa lanen truke 25.000 euroko dirulaguntza emango ziola urtero Oñatiko Udalak.

Erabilera aldatu egin da

Garai hartan Aloña Mendikoek erabiltzen zuten Azkoagain eta, hortaz, horren ardura hartzea erabaki zuten. Egoera aldatu egin da azkenaldian. Ibarra instalazioak desagertu zirenetik futbol zelaiaren erabilera asko aldatu da, besteak beste, herri mailako futbol praktika guztiak bertan egiten direlako. Beteranoak eta eskola kirolekoak dira futbol zelaiko erabiltzaileetako batzuk.

Hori dela eta, Aloña Mendikoek horrela eskatu dutelako eta Udalaren Kirol Zerbitzuak proposamenarekiko oniritzia agertu duelako, mantentze, zaintza eta garbiketa lanak Udalak bere gain hartzea erabaki du eta, esan bezala, Bidebarri Enplegu Zentroari eman dizkio lanak.

Esandako enpresa 1996. urteko ekainaren 14an sortu zuten,



Azkoagain askoz talde gehiagok erabiltzen dute lehendik ona, Aloñako guztiek, herriko txapelketakoek eta eskolartekoek, besteak beste. | JOSETXO ARANTZABAL

lana aurkitutako orduan zailtasun gehien dituzten taldeei laguntzeko, hain zuzen ere. Arazo pertsonalen ondorioz lan-merkatutik kanpo daudenei lana edo konponbideren bat ematea da helburua. Ildo horretan, edozein motatako ezintasunak edo ekonomia eta gizarte-baldintza kaskarrak dituztenak hartzen dituzte bereziki kontuan. Oñatiko Udala, gaur egun, enpresaren %50eko kuartaren jabe da.

Urtebeteko kontratua

Oñatiko Kirol Zerbitzuko teknikari Oskar Carracalek azaldu digu esleipena futbol zelaiaren egin beharreko lan horiek "arautzeko" egin dela eta "premiatzeko" esleipen bat izan dela: "Premia sortu zen eta azkar eman behar genion irtenbidea horri. Dena dela, esan beharra dago behin behineko esleipena dela, urtebeteko iraupena duena. Joan den urteko abenduaren 1ean hartu zuten Bidebarrikoek lana

eta aurtengo abenduaren 31n bukatuko zaie kontratua. Hori amaitzean, esandako zerbitzua lehiaketa publikora ateratzeko asmoa dugu".

Lan horietarako aukeratzekoan kontuan izan dituzten hainbat arrazoi ere aipatu dizkigu Carracalek. Enpresaren helburua zein den eta krisia horretan izaten ari den eragina ikusita, Azkoagaineko zerbitzu hori Bidebarri zuzenean esleitzea onartu dute. Aurretik, bai

na, gaia ondo aztertu dela eta Ogasun eta Kirol batzordeen irizpenak aldekoak izan direla argi utzi nahi izan du.

Bi langile

Aloña Mendiren garaian, langile bakarra zebilen Azkoagainen lanean. Orain, oster, bi langile dabilta beharrean, txandaka. Egiten duten lanen gainean ere jardun du Carracalek: "Oinarriko mantentze-lanak egiten dituzte; hau da, ez dira gauza teknikoetan sartzen. Batez ere, instalazioak garbi eta egokira onean edukitzeaz arduratzen dira". Eta orain arte egindako lanaren balorazioa ere egin nahi izan du Kirol Zerbitzuko teknikariak: "Oso pozik gaude, eta balorazioa positiboa da; izan ere, beti daude hobetu behar diren gauzak, baina funtzionamenduak berak, denborarekin, esango digu horiek zeintzuk diren".

DATUA

23.210

EURO

Horixe da Bidebarri zerbitzua eskaintzeagatik kobratuko duena.

Ezin izango dira pipak edo palomitak jan

Zaintza, mantentze eta garbiketa lanen gaineko erabakiaz gain, tokiko gobernu batzarrak erabaki du Azkoagainen pipak, palomitak edo antzekoak jatea debekatzea. Esandako erabakia argudiatzeko, azaldu dute horrelako jangarriek eragina dutela futbol zelaiaren. Horren harira, azpimarratu dute haizeak zabaldu egiten dituela eta futbol zelaitik horiek jasotzea oso zaila dela. Gauzak horrela, kirol instalazio horretan halakoak jatea debekatuta dagoela dioten kartelak jarri dira.

ESANAK

"2012an zerbitzua lehiaketa publikoan aterako digu"

OSKAR CARRASCAL | KIROL TEKNIKARIA

goienakluba[™]

Abantailaz betetako kluba!

ABENDUKO IRABAZLEAK



Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

IRABAZLEA

UMEENTZAKO
LIBURUA
Umeentzako
Katalina liburua.



Miren Bengoa Leiba
Arrasate

IRABAZLEA

UMEENTZAKO
IPUINA
Umeentzako Abrite
Portas ipuina.



Eusebio Errasti Amozarrain
Arrasate

IRABAZLEA

UMEENTZAKO
DVD-A
Umeentzako Armis
Kart DVDa.



Marga Zabaleta Lamariano
Arrasate

IRABAZLEA

UMEENTZAKO
PUZZLEA
Umeentzako Argitxo
basoan puzzlea.



Aitziber Astola Elorza
Arrasate

IRABAZLEA

ERREMEIXUAK
DVD-A
Erremeixuen
DVDa.



Amaia Bikuña Martínez de Zuazo
Oñati

IRABAZLEA

DANBAKAKO
PACK-A
Hiru diska eta
kamiseta bat.

DANBAKA))))))

Iñigo Eguren Konde
Bergara

SARI NAGUSIA AZAROA-URTARRILA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

26 HAZBETEKO TELEBISTA

- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- Barneratutako TDT-a.
- HDMI.
- USB 2.0

EROSKI



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzue datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Aretxabaletako Belar-meta denda ostiral arratsaldean. | JOSETXO ARANTZABAL

DEBAGOIENA

Asteburuan hasi izanak eragin handia izan du bertako dendetan

Gabon kanpaina eskasaren ostean, beherapenen erantzunaren zain dendariak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Errege Egunaren ostean eta aste-burua aurretik hasi da aurten beherapen sasoi eta horrek eragin bizia izan du bezeroen aukeran; izan ere, bestela baino erosle gehiagok jo du hiriburu-tako saltoki eta merkataritza zentroetara. Gureko dendariak ere ondo sumatu dute egutegiak eragindakoa. Hala ere, dendariak diote eragina uste baino txikiagoa izan duela horrek. "Jendea Bilbo eta Gasteizera joan dela igarri" dela diote, adibidez, Arrasateko Jifh gazteentzako arropa dendakoek, "baina jendea ibili badabilela" eta Lasagabaster den-

dan "aurreko urteetan baino hobeto" hasi direla diote. Oñatiko Chic-en ere "zubiaren eraginaren beldur" ziren eta azkenean "oso ondo" batekin erantzuten diote lehenengo egunak zelan joan zaizkien galdetuta. "Horretan %40ko deskontuekin hasi izanak ere izango du eraginik", aitortzen dute.

Hasteko, %30-40ean

Lehenengo bi asteetan %30eko beherapenari eutsi ohi diote komertzio gehienetan eta hortik aurrera astez aste jarraitzen dute prezioa jaisten. Arrasateko Lasagabasterren, ostera, gaur %50eko

deskontuekin zabalduko dute zuzenean eta Oñatiko Loramen-din asteburuan jada izan dituzte jantziak erdi prezioan. Bergarako LZE-en ere %50eko beherapenarekin hasi dira zenbait jantzi-tan eta hemen ere asteburuan zehar "oso lanpetuta ibili" dira, "batez ere egubakoitz arratsaldean eta zapatu eguerdian".

Gabonetako kanpaina eskasa

Gabon kanpaina eskas baten ondoren datoz aurtengo beherapenak eta nabari ei da oso artikulua zehatzen bila dabiltzala bezeroak deskontu onen zain.



ARANTXA DE LA FUENTE
MARKELIÑE, BERGARA

"Aurreko urteetan bezala gabiltza aurten, aldaketa nabarmenik gabe; eta, hala ere, esanguratsuen asteen zeharrekoa izaten da. Jendea dagoeneko hasi da gerturatzeko aurretik ikusitako artikulua horren beherapenak ea konbentzitzen duen. Gabonetako kanpaina ez da oso ona izan eta horrek ere eragina izan duela esan daiteke".



AROA VICENTE
LZE, BERGARA

"Egia da gaur egungoak ez direla orain bost urte izaten genituen beherapen egun zoroak. Aurten berezia izan da bezeroek hiriburu-tara jo dutelako. Asteaz zehar normaltasunera itzuliko garela ematen du. %30ean hasi, gero %50 eta azkenik likidazioa. Arin egiten dugu guk beherapena, ze otsail erdirako udaberriko aurrerapenarekin hasten gara".



TRINI OLABARRÍA
MUJIKA, BERGARA

"Jendea beherapenen zain zegoen eta goizean goiz dagoeneko atean zain geneuzkan bezeroak. Gainera, jendeak ohitura handia du astebete lehenago etorri eta zer dagoen begiratzeko. Poliki-poliki agortzen joango da, baina lehenengo egun hauetan genero asko daukagu eta jende asko dabil. Aurreko urteetan baino zertxobait hobeto hasi garela ematen du".

BERGARA

Gabonetako oporretan ere ikasten jarraitu dute gaztetxoek, denetariko tailerretan

Neskak izan dira gehien ikastaroetan; tailer arrakastatsuenak, makillajearena, zalantza barik

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Udalak gaztetxoendako sei ikastaro antolatu ditu Gabonetan: sexologia, makillajea, zirko teknikak, barre-terapia, euskal dantzak eta dantza eta koreografia. Egubakoitzean amaitu ziren tailerrek dantza eta koreografiakoekin. Amaia Etxebarría begira learen arabera, neskak izan dira gehien ikastaroetan: "Zirko tekniketan tailerretan hiru mutil izan ziren, gainontzekoetan ez da mutirik izan". Makillajearena izan da, zalantza barik, arrakasta gehien izan duen tailerra.

Balorazio positiboa egin du Etxebarría eta datorren urtean ere tailerrok antolatuko direla espero du: "Balorazio sakonagoa egingo dugu eta gaztetxoek eskatzen dutenaren arabera, datorren urtean ere egitea espero dugu".



Neskak izan dira tailerretan parte hartu duten gehienak. | JOSETXO ARANTZABAL



LEIRE MOÑUX
BERGARA

"Dantza eta koreografia tailerra polita izan da baina irakasleari jarraitzea nahiko zaila da une askotan, oso azkar doa-eta. Hala ere, banabil dantza batzuk ikasten. Egon naizen ikastaroetatik makillajearena izan da gehien gustatu zaidana, oso gustura aritu nintzen".



MIREIA IBABE
BERGARA

"Gaurko ikastaroa entretenigarria izan da, dantzak nahiko politak dira. Ez nituen dantza horiek ezagutzen eta lehen pausuak ikasten nabil. Beste ikastaro batzuetan egon naiz eta, horien artean, makillajearena izan da politena. Nire burua apaintzen ikasi dut eta asko gustatu zait".

DEBAGOIENA

Ibarreko Erregeen Kabalgatetan, ilusio eta gozoki uholdeak protagonista



Baltasar Erregea morroi eta guzti iritsi zen Aretxabaletara. | MIRARI ALTUBE

J.B. | ARRASATE

Hiru Errege magoek ez zuten hutsik egin gure ibarrean. Ekialdetik bidaia luzea egin ostean, ilusioz eta gozokiz bete zituzten Debagoieneko kaleak hilaren 5eko iluntzean egin ziren kabalgatetan. Gero, gauean, arratsaldeko ilusioa eta gozokiak opari bihurtu zituzten ibarreko hainbat etxetan. Horregatik deitzen diegu Errege mago.

Arrasaten, ibilbide motzagoa

Arrasaten aurten aldaketekin etorri da kabalgata. Antolatzaileek, parte-hartze eskasa eta diru falta dela medio, ibilbide motzagoa egitea erabaki dute. Hala, Garibaitik irten eta erdigunea bakarrik zeharkatu zuen kabalgatak; San Andres auzora, adibidez, ez zen heldu. Antolatzaileak errelebo bila dabilta.

Hala ere, ikusmin handia piztu zuen kabalgatak hainbat arrasatearren artean. Aurten ere, hiru protagonista nagusiez gain, danbor-jole, morroi eta laguntzaileek egin zuten posible kabalgata. Desfilearen amaieran, iaz moduan, jaiotza biziduna egin zuten Herriko plazan. Danbor hotsen eta baserritar jantzitako hainbat haurren ahots gozoen artean, Jesusen jaiotza irudikatu zuten.

Aretxabaletan ere herriko kaleetan ibili ziren Errege magoak, zaldi gainean eta laguntzaile guztiak-musikariak barne- alboan zizutela.



Arrasaten jaiotza biziduna izan zen aurten ere, Herriko plazan. | JOKIN BEREZIARTUA



Bi igerilekuan ibili dira gustura neska-mutikoak. | JOSETXO ARANTZABAL

OÑATI

Umeak pozik, olagarro erraldoian bezala puzgarri kulunkarian

JULEN IRIONDO | OÑATI

Ur jolasak izan dira aurtengo Gabonetako oporraldian ere Oñatin. Zubikoako igerilekuan gustura asko ibili dira 13 urte arteko neska-mutikoak.

Igerileku txikian eta handian, bietan egin dituzte ekin-tzak. Handian era askotako puzgarriak egon dira: olagarro erraldoi bat; goreneraino igo eta txirristan jaisteko aukera ematen zuen beste bat; puzgarri kulunkari bat... Goizetik arratsaldera, gainera, aldatu egin zituzten puzgarriak, eta gazte-

txoek desberdinak probatzeko aukera izan zuten horrela.

Txikientzat ere bai

Iaz ere prestatu zuten igerileku txikia umeendako, eta aurten ere eman diete aukera, gurasoek lagunduta, jolasean ibiltzeko. Taula batzuk jarri zituzten putzuan, eta baita bi ate ere, baloi batekin batera.

Egubakoitzean, goiz eta arratsaldean, eta zapatu goizean egon zen irekita uretako parkea. Jende asko ibili omen da, egubakoitz arratsaldean gehien.



Barruko igerilekuen irekiera atzeratu egin da sabaia ren egoera txarra dela-eta. Irudian, bi langile joan den eguaztanean ateratako argazkian. | JOKIN BEREZIARTUA

Igerileku barik apirilera arte, sabaiko arazoengatik

Bihar, hilak 11, hasiko dira konponketa lanekin; erabiltzaileei pazientzia eskatu die Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Musakolako barruko igerilekuen arazoak luze joko du oraindik. Obrak epe barruan zihoazen, espero zen moduan, baina lanak amaitu ostean sabaian aurkitutako arazoak apirilera arte luzatuko dute erabiltzaileen itxarondia. Hori da Patxi Arburua Obra Saileko arduradunak jakinarazi duena, lanak Aste Santurako amaitzea espero dutela, hain zuzen. Hilaren 5ean egindako ezhoko plenoan onartu zen obrak

hasteko kreditu aldaketa. Obra egitea "ezinbestekoa" dela esan ostean, EAJko Luis Mari Apraiz zinegotziak adierazi zuen sabaiko arazoa orain aurkitzea "harritzekoa" dela: "Badirudi kudeaketak akats batzuk izan dituela" esan zuen Apraizek.

Ino Galparsoro alkateak erantzun zion arazoa orokorra dela esanez: "Duela hainbat urte egin ziren egitura horien konponketak, baina oraindik arazoak hor jarraitzen du". Horregatik obrak hasi

2011an, irailaren 11an, zuzendakariak jakinarazi zuen alkateak, sabaia ren egoera aztertzeko. Bada, orduan aztertu ziren zatiak egoera onean zeuden.

Pazientzia eskatu dute

Igerileku nagusiaren sakontasuna murriztu da ura aurrezteko, iragazgaitze sistema hobetu da eta aireztatze sistema ere berri-tu da lanotan. Baina obrarekin amaitzera zihoazenean ikusi dute irekiera atzeratuko duen arazoa: "Sabaiko plakak kentzen joan garen heinean konturatu gara goiko habe batzuk ez zeudela egoera onean", azaldu du Arbu-

ruak. Plaka horiek poliuretanoz egindakoak izan ohi dira. Hona-koa ere gaineratu du: "Arazoa larria da, espero genuena baino potoloagoa, eta obra handia egin

ESANAK

"Arazoa larria da, eta obra handia egin beharko da sabaia urte askotarako segurua izan dadin"

PATXI ARBURUA | OBRA ETA MANTENTZE SAILA

Konpentsazio moduan, kuoten murrizketak

Aukeak dagoeneko gutun bat bidali die abonatuiei. Igerilekuen irekieraren atzerapenak eragindako kalteak konpentsatzeko deskontuak iragarri dituzte. Hainbat konbinazio daude; guk kaltetueneri erreparatuko diegu. Hau da, eremu hezerako txartela dutenei. Urte osorako dutenek igerilekua zabaldu arte eremu lehorrerako eta saunarako sarrera doan izango dute. Txartel partziala dutenek, berriz, igerilekuak zabaldu arte saunarako hamar sarrera izango dituzte bost euro ordainduta. Igerilekuak zabaltzen direnean hasiko dira kuota ordaintzen; urte amaiera arteko tasa proportzionala, hain zuzen.

beharko dugu sabaia urte askotarako segurua eta egonkorra izan dadin". Musakolako barruko igerilekuetako sabaia konpon-tzeko aurrekontua 390.000 euro ingurukoa da. Bihar, hilak 11, hasiko dira obrarekin eta Fryssinet S.A. izango da obraren enpresa arduraduna. Arburuak jakinara-zi duenez, enpresa horrek egin zuen eskaintzarik "merkeena eta azkarrena". Enpresa horrek sabaia giro oldarkor horretan -umeltasuna, kloroa...- hainbat urtez iraungo duela ziurtatu du. Hainbat erabiltzaile haserre dagoela badaki Udalak; egoera ulertzea eta pazientzia eskatu diete.

Ordaintzeko era, ordutegi eta ibilbide berriekin dator urbanoa, gaurtik aurrera

Garraio publikoa bultzatu gura du Udalak: Lurraldebus txartelarekin ordaindu daiteke, autobusak ordu erdiro pasako dira eta bost geltoki berri jarri dituzte

J.B. | ARRASATE

Udalak garraio publikoaren aldeko apustua berretsi du eta urte berriarekin batera hainbat nobedade izango dira autobus urbanoan. Adibide garbi bat: 2011ko aurrekontuetan iaz baino 150.000 euro gehiago bideratuko ditu garraio publikora. Nobedade aipagarriena da gaurtik aurrera Lurraldebus txartelarekin ordaindu ahalko dela. Orain arte erabili izan den udal txartela balio gabe geldituko da, eta horren ordez Lurraldebus txartela erabiliko da. Hori bai, udal txartelean dagoen diru kopurua Lurraldebus txartelera pasatzeko aukera dago. Aldaketa hori BAZen egin behar da mar-txoaren 31era arte dago aukera.

Abenduaren 29an sinatu zuten hitzarmena Aldundiak eta Udalak; egun 7.000 bizilagunek dute txar-tela baina Udalak espero du kopu-ru horrek gora egitea. Bestalde,



Urbano berriak martxan dabilta dagoeneko, txartel sistema berriarekin. | J.B.

Arantza Tapia Garraio diputatuak Bilborekiko zerbitzuren inguru-ko nobedade bat ere aipatu zuen: 2011ko lehen hiruhilekoan sinatu-tuko dutela hitzarmena Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Bizkaibusen

zerbitzua Elorrioraino behar-rean Arrasateraino iritsi dadin.

Lurraldebusekin merkeago

Lurraldebus txartelarekin ordain-duz gero, askoz merkeagoa izango

da autobus urbanoaren zerbitzua: lehen bidaiatik 40. bidaiara arte txartela erabiliz gero, 0,73 euro kostako da bidai bakoitza, 41 eta 70. bidaiaren artean, 0,36 euro, eta 71. bidaiatik aurrera 0,12 eurotan irte-tan da bidai bakoitza.

Kontuan izan behar da deskon-tu horiek hilabeteka aplikatuko direla. Hau da, hilabete bakoitzean zerotik hasiko dira bidaiak zen-batzen. Lurraldebus txartela era-bili barik bidai bakoitza 1,35 euro ordaindu beharko da.

Bost geltoki berri

Ordaintzeko era berriaz gain, beste berritasun batzuk ere badi-ra. Autobus kopurua bikoiztu egin da, bi autobus berri erosi ditu Udalak. Egun, beraz, bost autobus daude. Autobus berriak txikiagoak dira -ikusitako argazkia-, 16 eserleku dituzte. Ordutegia ere aldatu dute: autobus kopurua bikoiztu dutenez maiztasuna ere bikoiztu dute; gaurtik aurrera ordu erdiro pasako dira autobu-sak. Baina hori ez da guztia, ibil-bidean ere berritasunak daude. Geltoki berriak jarri dituzte, bost geltoki berri, hain zuzen: Garaian, Itxaropena kalean, Udalpen, Kirol-degian eta San Isidron.

Zaldibarko futbito txapelketa bueltan dator Gabonen ostean

Gabonetako geldialdiaren ostean bueltan dator Zaldibar-ko futbito txapelketa. Cipris eta Ekaitz daude sailkapeneko lehen bi postuetan, 21 puntu-rekin. Liderra den talde esko-riatza Abokajarraren aurka lehiatuko da -domekan, 12:30ean- eta Ekaitzekoak, berriz, Mcawen Dauen talde-aren aurka -zapatuan 12:30ean-.

Haur eta helduendako lau film izango dira hil amaierara arte

Amaia antzokiko zinemak ez du etenik. Helduendako eskain-tzaren barruan, *Bon appetit* -hilak 23, 20:00etan- eta *Caza al espia* -hilak 30, 20:00etan- filmak izango dira ikusgai.

Haurrendako eskaintzari dagokionez, bestalde, *Tron, el legado* -hilak 23, 17:00etan- eta *Harry Potter y las reliquias de la muerte* -hilak 30, 17:00etan- filmak botako dituzte.

20 urte bete dituen Txikilandia "osasuntsu" dago oraindik

Urtarrilaren 2, 3 eta 4an batz bestea 400 neska-mutiko batu ziren egunero

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Txikilandiak 20 urte bete ditu haur eta gaztetxoendako horren bereziak diren Gabonetako oporrak alaitzen. Bi hamarkada dagoeneko, eta Ainara Kortabarria Txatxilipurdiko kideak adierazi duenez, beste 20 urte betetzeko moduan dago Arrasateko Gabonetako jolas parkea: "Txikilandia osasuntsu dagoela esan daiteke, haurrak irrikaz etorri dira eta gu ere gogotsu aritu gara lanean. 20 urte bete ditugu eta espero dugu beste 20 urte betetzea".

Diru kontuak alde batera utzita, bestelako arazo batzuei ere egin behar izan diete aurre. Kiroldagiko kanpoko kantxak eta barruko igerilekueetan ezin izan dute gunerik egokitu, obrak direla medio. Beraz, aurreko urteetan izan diren hainbat jardura aurtentzen ezin izan dituzte gauzatu.

Lehen eguna, ahulena

Kortabarriak jakinarazi duenez, urtarrilaren 2a izan zen egunik ahulena: "Jende askok Txikilandia astelehenean, hilaren 3an, zabaltzen zela uste zuen, hori esan ziguten astelehenean. Hori izango zen seguruenik neska-mutiko gutxi etorri izanaren arrazoi nagusia". Egun horretan 300 neska-mutiko inguru joan ziren Musakolako kiroldegira. Hilaren 3a izan zen egunik jendetsuena: 450 neska-mutiko baino gehiago hurbildu zen, eta hilaren 4an, azkenik, 400 sarrera inguru saldu ziren. Horien guztien artean aurkitzen dira egun guztietarako saldu ziren 150 abonauak.

Txikienak puzgarrien artean ibili ziren gusturen eta gaztetxoak, berriz, Wii kontsola zegoen gunean. Tailer, jolas eta antzezlanek, noski, ez zuten hutsik egin.



20 urteotan lan egindakoei omenaldia egin zieten urtarrilaren 4an. | TXOMIN MADINA

Iraganean lan egindakoei omenaldia

20 urteotan Txikilandian lan egindako zenbait lagun igo ziren agertoki gainera, eta guztiei ere oroigarri bat eman ostean, Ane Zuazubizkarrek bertso bat eskaini zien. Ondoren, omenduek eta Txikilandian zeuden guraso zein neska-mutikoei, garai baten jolas parkearen ereserki izandakoa abestu zuten.

2011n berrikuntzekin dator Arrasate Irratia

'Igo autobusera' irratsaioa 10:30etik 11:30era izango da aurrerantzean, hainbat nobedaderekin



Aitziber Aranburuzabala eta Oihana Elortza esatariak. | JOKIN BEREZIARTUA

J.B. | ARRASATE

Berrikuntzez josita hasiko du urte berria Arrasate Irratiak. Ordutegi aldaketa da aipagarriena: gaurtik aurrera, 10:30etik 11:30era izango da zuzenean *Igo autobusera* irratsaioa -frekuentzia modulatu 107.7 dialean-. Orain arte moduan, albisteak izango dira irratsaioaren ardatza.

Gaur estreinatzen den programazio berria, 15 minutuko albistegia egongo da lehenengo eta magazina gero. Magazinarekin barruan sartuko dira eguneko beste albiste batzuk, elkarrizketa edo erreportaje moduan. Horrez gain, baina, betiko tarte finkoak ere izango ditu *Igo autobusera* berriak, hala nola, gazte bulego eta sexologia zerbitzuko azken berriak, teknologia berrietan eman diren nobedadeak eta entzuleen artean banatzeko opariak.

Etzetik hasi, eta gero, kanpora

Aurrerantzean Arrasate Irratiko albistegia hainbat alditan eskainiko da. Helburua da gertu-gertuko informazioarekin hasi, Deba-goienekoarekin batera, eta albiste orokorrekin bat egitea gero. Hala, 10:30eko albistegia berriro entzun ahalko da 11:45ean eta 12:45ean. Arratsaldetan, berriz, goizeko irratsaio osoa entzun ahal izango da: 14:00etan, 17:00etan, 19:00etan eta 22:00etan.

Ez da aldaketarik izango egubakoitzetako saioaren amaieran izaten den zozketan. Asteon honakoa zozketatuko dute: Jon & Sugramas eta Bide Ertzean taldeen disko bana, *Erremeixoa* DVDa eta Danbakako finalerako bi sarrera. Izan ere, musikak pisu handia izango du oraindik ere Arrasate Irratian. Parte hartzeko, betiko bideak: irratia@goiena.com eta 943 25 05 05.

Anorexia eta bulimia landuko dituzte hilaren 18ko hitzaldian

Acabe Euskadiko anorexia eta bulimiaren kontrako elkartearen eskutik hitzaldia izango da hilaren 18an Kulturategi areto nagusian (19:00). Bi gaixotasunen gainean eta elkartearen zereginen gainean jardungo dute.

Naturak 2009an utzi zituen irudi onenak, hilaren 16ra arte

Kulturategi klaustroan ikusgai dago *Naturaren Argazkilaria 2010* erakusketa. Urtarrilaren 16an itxiko dute. Ordutegia honakoa da: 17:30etik 20:30era.

Eibarko beteranoak nagusi Mondrakoaren aurrean (4-1)

Sebastian Abad *Sebas* Mondrako jokalaria ohia omentzeko partiduan Eibarko beteranoak 4-1 nagusitu ziren Mondrakoaren aurrean. Hasieran Antzuolako beteranoek ere hartu behar zuten parte txapelketan, baina azken orduko arazoengatik ez zuten jokatu. Omenduaren senitartekoei oroigarria jaso zuten.



ANDER MONEDERO

Plan estrategikoa diseinatzeko batzar irekiak, bihartik aurrera

- ▶ Udalak dei egiten die herritar guztiei batzarrotan parte hartzera
- ▶ 19:00etan izango dira, osoko bilkuren aretoan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Apirilera bitartean udalerriko plan estrategikoa egin nahi du Udalak herritarren parte-hartzearekin. Udalaren asmoa da, alde batetik, herritarrek Bergara gaur egun nola ikusten duten aztertzea eta horrekin batera 20 urte barruko Bergara irudikatzea eta egoera hori lortzeko estrategiak proposatzea.

Horrekin lotuta, azaroan eta abenduan hainbat batzar egin dira. Hain justu ere, arlokako bost lantalde osatu dira -biztanleria, garapen ekonomikoa, herriko zerbitzuak eta ekipamenduak, lurralde anto-

lamendua eta ingurumena eta herrigintza- eta arlo horietako bakoitzean gaiaren inguruko eragileak elkartu dira. Arlo bakoitzak hiru bilera egin ditu eta batzarrotan egungo Bergararen egoera aztertu dute.

Herritarren parte-hartzea

Bada, asteon prozesuak beste urrats bat egingo du. Hain justu ere, Udalak deialdi irekia egin nahi die herritarrei plan estrategikoa parte har dezaten, eta, horretarako, herritar guztiendako irekiak diren hiru batzar antolatu ditu asteon

hasi eta martxora bitartean. Hor, herritarrek aukera izango dute nolako herria nahi duten zehazteko. Batzarrek bi ordu iraungo dute eta osoko bilkuren aretoan izango dira, 19:00etan.

Batzarretan parte hartzeko, baina, herria hiru eremutan bereiztu dute: batetik, landa eremua (Angiozar, Aldai Egia, Aritzeta, Goiauzoa, Elorregi, Arane, San Juan, Ubera, Basalga, Osintxu, Murinondo eta Elosua). Bestetik, herrigunea; eta azkenik, herrigunea inguratzen duten auzuneek osatzen duten eremua (Labegaraia, Ozae-

ta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Toki Eder, San Lorentzo, Zubieta, Poligonoa eta Bolu).

Landa eremuko bilerak honako egunetan izango dira: urtarrilaren 11n -bihar- eta 25ean, otsailaren 22an eta martxoaren 8an.

Herriguneko batzarrak, berriz, urtarrilaren 12an -etzi- eta 26an, otsailaren 23an eta martxoaren 9an izango dira.

Eta herrigunea inguratzen duten auzuneetako herritarrendako batzarrak hilaren 13an -egueña- eta 27an, otsailaren 24an eta martxoaren 10ean izango dira.

Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin egingo du parte-hartze prozesua Udalak. Bada, herriaren eraikuntzarako gakoak diren hainbat arlo landuko dira, eta herritarrekin batera hainbat galderari erantzun nahi diete; esate baterako: Nola erantzungo diegu krisi energetikoari eta krisi ekologikoari? Nola zainduko eta ustiatuko ditugu Bergarako natura baliabideak? Nola erantzungo diegu etxebizitzaren arazoari? Non egongo dira herriko denda eta tabernak? Gutxiuntzat egokitu-tako gune eta eraikinak izango ditugu? Zein errepide egongo dira eta non? Zirkulazioaren intentsitatea nolako izango da? Non eta nola apartakatu dugu? Garraio publikoa nolako izango da? Urbanorik izango dugu oraindik?...


Herritarrei dei egiten diete

Azaroan eta abenduan, prozesuaren hasieran arloka egindako batzarretan parte hartu duten bost herritar ekarri ditugu hona, eta, hain zuzen, prozesuan parte hartzea zergatik den garrantzitsua azaldu dute.



KONTXI UGALDE
UDAL IDAZKARIA

"Garbi neukan Bergara pixkanaka biztanleak galtzen ari zela, baina eskuratu ditugun datu guztiak batera ikusita, konturatu naiz datozen urteetan gauzak okerrera joateko arriskua dagoela. Beraz, gogoeta bat egitea premiazkoa dela uste dut eta horretarako aukera dago une honetan. Herritar guztiak gara gai bizi garen herria nola ikusten dugun eta 10 urte barru nola ikusi nahi dugun azaltzeko eta hori lortzeko proposamen batzuk egiteko. Beraz, uste dut horretarako aukerak aprobeitzekoak direla".



MANU DIEZ
ABOKATUA

"Herritarrek iritzia eta ideiak ematea aukera egokia dela uste dut. Egokia ez ezik, beharrezkoa ere bada. Zenbat eta bergarar gehiagok parte hartu prozesu honetan, orduan eta ideia gehiago egongo dira. Politika mailan sartuta egon ez, eta gizarte zibilari parte hartzeko aukera ematea sekulakoa da. Gero, ideia eta planteamenduei bideragarritasuna aurkitu beharko zaie, baina herritarren parte-hartzea beharrezkoa da hori modu egokian lortu ahal izateko".



MILA ELORTZA
ANGIOZARKO AUZO-ALKATEA

"Nik uste dut herritarren betebeharra dela parte hartzea; herriak zer nahi duen esan behar du. Ez dut uste borondatezkoa izan behar duenik bileretan parte hartzea, derrigorrezkoa baino. Gure eskuetan egon daiteke etorkizuneko Bergara eta herritar bakoitzak bere iritzia emateko modu egokia da prozesu hau. Batzuetan, ditugun ideiak kontakieria direla uste dugun arren, hortik abia daitezke etorkizunean herrian egin ahal diren proiektuetako asko eta asko".



MIREN ARANTZABAL
ASPACE-KO LANGILEA

"Denon iritzia beharrezkoa da. Guztiok ditugu ikuspuntu desberdinak eta nor bere ardurak ditu. Gure kezka eta ardura horiek ezagutarazteko egokiak izan daitezke bilerak hauek. Bertan ideia eta planteamenduak erakustea da helburua, eta gero ikusiko da horiek gauzatzea posible ote den edo ez. Bideragarritasuna oso garrantzitsua dela ezin da ukatu, baina, horrez gain, herriaren nahia ezagutzea ere guztiz beharrezkoa da. Eta horretarako egingo dira bilerok".



AINTZANE BIDELUZE
OSTALARIA

"Jendea parte hartzera animatu nahi dut. Batez ere, gazteak animatu nahi ditut batzarretan parte hartzera, baita nagusiak ere, baina gazteon iritzia ezagutzea interesgarria litzateke. Iruditzen zait denon ikuspuntua dela beharrezkoa. Etorkizuneko Bergararen zati txiki bat eraikitzeo aukera izan daiteke, edo ez, baina horretarako beharrezkoa da herritarren parte-hartzea. Azken baten, gu geu edo gure ondorengoak izango baitira herrian, Bergaran, ibiliko direnak".

Mariskoa Jesus Murgizuk eroan zuen

Ezker abertzaleak urtero abenduaren 24an zozkatzen duen marisko otarrearen zenbaki saritua 1.179 izan zen eta Jesus Murgizuri egokitu zitzaion. Pozik ageri da ondoko argazkian, txartela erakusten. Ezker abertzaleak eskerrak eman nahi dizkie zozketan parte hartu zuten guztiei.



Biodantza saio irekia gaur, 19:00etan, Miguel Altunan

Biodantzako saioa egongo da gaur, astelehena, Miguel Altuna institutuan, 19:00etatik 21:00etara. Saioa irekia eta doakoa izango da eta irakasle titulatuak gidatuko du. Interesa duten herritar guztiak parte hartu ahal izango dute. Informazio gehiago lortzeko, deitu 626 66 12 92 telefono zenbakira (Mentxu).

Biodantza bizitzaren dantza moduan definitzen dute eta musika, dantza eta mugimenduaren bitartez bizipenak eragitea da arlo horren teknika.

Kultura talde eta elkarteendako oharra kaleratu du Udalak

Hain justu ere, 2010ean euren jardueraren eta egitarauetarako dirulaguntza jaso zutenek urtarrilaren 10eko 13:00ak arte dute dirulaguntzen zuri-keta egiteko tartea, eta zuri-ketaren ondoren dirulaguntzaren bigarren zatia jasotzeko.

Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu behar den dokumentazioaren berri <http://goiena.net/albisteak> helbidean, Kultura Zerbitzuan (kultura etxea) eta 943 77 91 81 telefono zenbakian eskura daiteke.

Batez beste, 300 bat ume ibili dira egunero Gabonetako jolasparkean

Hiru egunerako bonua atera dute aurten aurrenekoz eta oso erantzun ona izan du

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Erantzun ona izan du Udal Pilotalekuan hilaren 3tik 5era bitartean egin den Gabonetako jolasparkeak, eta pozik azaldu dira udal ordezkariak.

Asmatu egin zuten iaz Labe-garaletako kiroldegitik Udal Pilotalekura ekartzeko, eta hori eguneko sarreretan argi ikusi da aurten ere; batez beste, 300 ume ibili dira jolasparkean. Pilotalekua kiroldegia baino txikiagoa

den arren, gertutasunari eta epeltasunari garrantzi handiagoa eman diote erabiltzaileek.

Aurten merkeagoa

Aurtengo jolasparkearen berrikuntza nagusia prezioan egon da. Asko merkatu da, eta hori eskertu egin dute gurasoek: alde bate-tik, egun osorako txartela iaz baino bi euro merkeagoa izan da; 5 euro balio zuen iaz eta 3 euro izan da aurten. Eta, horrekin



Umeak margotzen, Udal Pilotalekuko jolasparkean. | MONIKA BELASTEGI

batera, hiru egunerako bonua atera dute lehenengoz, 7 euroren truke. Hain zuzen ere, udal ordezkariak aurreratu dute askok egin dutela bonuaren alde eta lehenengo egunean batik bat bonuok saldu zituztela.

Valdezcarayra irteera

Bestalde, urtarrilaren 22rako Valdezcarayra eski irteera antolatu du Gazteria Zerbitzuak. 12 eta 18 urte arteko gazteendako da eta izenematea gaur, astelehena, zabalduko dute.

Prezioari dagokionez, eskia-tzeko materiala daukatenez 20 euro ordaindu beharko dituzte eta alokatuko dutenek, berriz, 40 euro. Izenematea hilaren 14ra arte da, kultura etxean, 943 77 91 60 telefono zenbakian.

Bukaera borobila izan du Gabon Saria pilota txapelketak aurten ere

Abenduaren 30ean jokatu ziren finalak

FINALEKO EMAITZAK

Nagusiak	Ander Mugurutz 11 - Eneko Mugurutz 18
Gazteak	Mikel Gallastegi 18 - Lander Osa 6
Kadeteak	Julen Jorge 18 - Gorka Santamaria 9
Infantil A	Iker Gasteñaga 16 - Euken Azpeitia 11
Infantil B	Unai Zubizarreta 13 - Asier Jorge 16
Alebin A	Mikel Najera 16 - Aimar Olañeta 13
Alebin B	Luken Arriola 8 - Ander Etxaniz 16
Benjamin A	Julen Etxabarri 16 - Jon Armendariz 9
Benjamin B	Xabier Muruamendiaratz 10 - Iker Etxaniz 16
Benjamin C	Jon Larrañaga 16 - Gorka Dominguez 8
Benjamin D	Xabier Igartz 16 - Iker Gil 13

M.B. | BERGARA

Urri bukaeran hasi zen eta abenduan bukatu da Gabon Saria pilota txapelketa. Abenduaren 30ean Udal Pilotalekuan jokatutako mailakako finalekin bukatu da, hain justu ere, dagoeneko Gabonetan ezinbesteko hitzordu bilakatu den eskuz banakako txapelketa hori.

Maila guztiak aintzat hartuta, 130 bat pilotarik hartu dute parte txapelketan, hamaika mailatan banatuta, eta, esan bezala, maila bakoitzeko irabazleak abenduaren 30ean erabaki ziren.

Finalari dagokionez –emaitzak ondoko taulan–, azpimarratzekoak dira infantil B, kadete eta nagusien mailetan jokatutakoak, batez ere aurreikuspenak bete ez zirelako. Osterantzean, 11 sarituek txapela eta garaikurra jaso zuten profesional mailako Aritz Las-



Txapelketako irabazleak txapela eta oroigarria eskuan dutela. | INIGO ZAITEGI

kurain pilotariaren eskutik eta Beñat Rezusta *Diario Vasco* txapelketako promes mailako irabazlearen eskutik.

Barru jokoak ere bai

Horrez guztiaz gain, barru jokoak ere egin zituzten finalerako egunean, azken urteotan ohitura bihurtu den moduan.

Joko horietako irabazleak honako hauek izan ziren, hain

zuzen ere: Beñat Rezusta, nagusien mailan; Jokin Osa, gazteetan; Paul Valgañon, kadeteetan; Josu Zezeaga, infantil A mailan; Ibon Etxabarri, infantil B mailan; Jon Merino, alebin A mailan; Josu Elizburu, alebin B mailan; Julen Murgiondo, benjamin A mailan; Unai Roije, benjamin B mailan; Erik Aranburu, benjamin C mailan; eta Iker Ugarte, benjamin D mailan.

Realak irabazi du gazte mailako txapelketa

Gabonetako gazte mailako 21. txapelketan Realak gailendu da, Urtezahar egunean Agorrosinen jokatutako finalean Eibar taldeari 1-0 irabazita. Finalera bidean, Realak Bergarari irabazi zion (2-0) eta Eibarrek UDARI (4-1). Irudian, irabazleak Bergarako jokalariekin, haien kontra egindako partiduan, Realzaleak taldeko hainbat kide lagun dituztela.



15 milioi pasako aurrekontua onartu dute

Sailei begiratuta, Hirigintzak izango du jaitsiera handiena: %20,19 jaitsiko da aurrekontua

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

15.401.740,09 euroko aurrekontua onartu du udalbatzak 2011. urterako, abenduaren 22an egindako osoko bilkuran. EAJko, Hamakabateko eta PSOEko zinegotziek alde bozkatu zuten, PPkoak kontra eta Oñati Ezkerretik koalizioakoak abstenitu egin ziren.

Inbertsioak behera

Inbertsioen arloan 1.858.788,13 euro aurreikusten dira 2011n, iaz baino %22,74 gutxiago. 700.000 euro Errekaldeko lanak amaitze-

ko izango dira; 185.000 euro San Lorentzo eraberritzen jarraitzeko; eta 145.000 euro Atzeko kale erdi oinezkoendako egokitzeko. Horietaz gainera, 2010eko aurrekontuetatik ekarri dituzte osasun zentroko irisgarritasuna hobetzeko lanak eta urtarrilean hasiko diren Roke Azkune kalea hobetzeko lanak.

Gizarte Zerbitzuak

Gizarte Zerbitzuen sailean, igoera %2,78 da. Hain zuzen ere, etxez etxeko laguntza azpi-

AURREKONTUA DEPARTAMENTUKA

DEPARTAMENTUAK	2010	2011	%
Idazkaritza eta Ogasuna	1.680.814,68	1.771.716,85	5,41
Euskara eta Hezkuntza	497.634,01	504.321,49	1,34
Turismoa	277.625,00	277.700,00	0,03
Nekazaritza-Auzoak	354.127,61	462.351,43	30,56
Gizarte Zerbitzuak	1.739.821,20	1.788.252,14	2,78
Hirigintza eta Lurralde Antolamendua	1.983.356,80	1.582.860,78	-20,19
Kirolak	931.553,13	969.746,69	4,10
Kultura	992.313,51	1.003.127,00	1,09
Langilegoa	4.159.559,22	3.970.745,03	-4,54
Garapena, Ekonomia eta Enplegua	349.874,48	313.349,48	-10,44
Zerbitzuak, Azpiegiturak eta Ingurumena	2.584.401,16	2.526.267,57	-2,25
Haur eta Gazteak	248.995,47	231.301,63	-7,11
GUZTIRA	15.800.076,27	15.401.740,09	-2,52

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

marratu du Lourdes Idoiaga alkateak: 626.000 euro etxez etxeko laguntzarako izango dira; 2010ean egindako gastua baino

%17 handiagoa da 2011rako aurrekontua.

Nekazaritza eta Ingurumen sailean %30,56ko igoera egongo

da. Bideen inbentarioa eta abeltzaintzako eta nekazaritzako ekimenetarako laguntzak egingo dituzte, besteak beste.

ETEOko fundatzaileak omendu zituzten

Xabier Arrazola, Regino Biain, Angel Etxeberria, Jose Maria Martinez, Sabino Zuazabeitia, Angel Elgero, Luis Mari Madina, Jose Luis Madinagoitia, Jose Mari Igartua, Jesus Mari Irizar, Manolo Egaña, Javier Mugarza, Juan Umerez eta Jose Antonio Mendikute omendu zituzten Enpresagintza Fakultateak. Ricardo Barañano, Javier Astigarraga eta Benito Ijurrak ezin izan zuten ekitaldian egon.



AMAIA AIZPURI

Gaur zabalduko dute eski irteeretan izena emateko epea

A.E. | OÑATI

Aloña Mendiko eski saileko kideak gaur hasiko dira irteera eta ikastaroetan parte hartu gura dutenen izenak jasotzen. Dagoeneko aurkeztu dute denboraldia: hain zuzen, aste bukaerako hiru irteera, aste osoko bat eta eski zeharkaldiko ikastaro bat antolatu dituzte 2011rako.

Astelehen eta eguaztenetan

Gaur, astelehena, zabalduko dute izenemate epea eta eguaztenean izango da hurrengo eguna. Eski saileko kideak Aloña Mendiko tabernan egongo dira, astelehenetan eta eguaztenetan, 19:00etatik 20:00etara. Izena emateko hara joan behar da.

Baqueira-Beretera irteerak

Aste bukaerako hiru irteera antolatu dituzte Baqueira-Beret eski estaziora. Lehenengo irteera hil honetan bertan izango da, urtarrilaren 28tik 30era. Hurrengoak otsailaren 25etik 27ra eta martxoaren 25etik 27ra izango dira.

Gainera, aste osoko irteera antolatu dute Frantziako alpeetako Tignes-Val d'Isere estaziora, apirilaren 22tik 30era (Aste Santua).

Eski zeharkaldi ikastaroa

Eski zeharkaldiko ikastaroa hiru mailatan banatuko dute: handia, ertaina eta txikia. Martxoaren 11n, 12an eta 13an egingo dute, Baqueirako estazioan.

Zuazola-Larrañan praktika gehiago izango dituzte

A.E. | OÑATI

Aurrerantzean soldadura MIG-MAG eta Soldadura TIG ikastaroak 80 ordukoak izango dira; hau da, praktika ordu gehiago izango dituzte. Eguzki energia fotoboltaiko eta termikoari dagokionez, 60 orduko ikastaroa izango da eta ikastetxean bertan garatutako eguzki panel didaktikoetan praktika saio gehiago egiteko aukera egongo da. Ikastarook %100 diruz lagunduko ditu Hobetuz-ek.

Informazio gehiago 943 78 21 50 telefono zenbakian edo www.onati.net webgunean.

Emakumeendako autoestimu tailerra

A.E. | OÑATI

Udaleko Gizarte Zerbitzuak 45 urtetik gorako emakumeendako doako autoestimu tailerra antolatu du.

Amaia Aldama eta Mamen Antelo izango dira ardura-dunak eta kultura etxean batuko dira. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 14a da, egubakoitza. Interesatuak 943 03 77 00 telefonora deitu beharko dute. Urtarrilaren 24an, otsailaren 7an eta 21ean, martxoaren 7an eta 21ean, apirilaren 4an eta 18an eta maiatzaren 2an eta 16an izango da tailerra.

Biharko eraman behar dira lanak gaztelekura

A.E. | OÑATI

Gaztelekuak antolatu duen Gabonetako argazki lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna bihar izango da, martitzena.

12-17 urteko neska-mutikoendako lehiaketa da. Paperean edo euskarri digitaalengan aurkezteko daitezke lanak, gaztelekuko informazio puntuan. Bi sari banatuko dituzte: 50 eurokoa bata eta 40 eurokoa bestea. Liburu, CD, bideojoko edo antzekoetan gastatu beharko dute dirua irabazleek. Lehiaketaren gaia *Gabonak 2010* da.

ESKORIATZAKO

Sei milioi euroko aurrekontua onartu du udalbatzak

Udal gobernuaren aldeko botoekin egin du aurrera

M. ALTUBE/M. BIKUÑA | ESKORIATZAKO
Abenduaren 27an egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak 2011ko Udal aurrekontua. 6.191.666 eurokoa da, iazkoa baino %22 handiagoa. Udal gobernuak kideek bozkatu zuten alde, EAJk eta Ezker Batuak kontra eta Alderdi Sozialistako zinegotzia abstenitu egin zen. EAKo eta

Hamakaibateko zinegotziak, ostera, ez ziren egon bilkuran.

1,3 milioi euro inbertsiotarako
Pedro Lasagabaster alkatearen esanetan austeritatea eta gardentasuna dira aurrekontuaren ezugarriak: "Austetiratea gastu arrunta estaltzeko arazoak izango ditugulako, eta gardentasuna,

UDAL AURREKONTUA

ARLOAK	EUROAK
Hirigintza, Obra-Zerbitzuak, Ingurumena, Elizateak	2.286.466,59
Ogasuna eta Enplegua	593.700,76
Gizarte Ongizatea, Drogomendekotasuna, Emakumea, Osasuna	494.227,81
Kultura, Euskara, Gazteria, Jaiak, Hezkuntza, Kirola, Museoa, Telesko	2.391.922,93
Administrazio orokorra	425.348,83
GUZTIRA	6.191.666,92

2008ko eta 2009ko auditoriak egiteko partida onartu dugulako".

Aurrekontuaren zati handiena gastu arruntak estaltzeko da, ia 4,5 milioi euro (%72). Inber-

tsioetarako, ostera, 1,3 milioi euro erabiliko dituzte. Hona inbertsio nagusienak: erabilera askotariko antzokia bukatzea; Atxorrotzeko gaztelua berreskuratzea; San Pedro

auzoa oinezkoendako egitea; eta elizateetako lanak. Gainera, bigarren gizarte teknikari postua mantentzea lortu dute eta aparejadorea kontratatzekeo partida onartu.

ARETXABALETAKO

Mondra, Aloña eta UDA nagusi, futbol txapelketan

Bixente Etxeandia Gabonetako II. Txapelketan futbol eskoletako 200 gaztetik gora elkartu dira

M.A. | ARETXABALETAKO
Abenduaren 26tik urtarrilaren 3ra jokatu dute Bixente Etxeandia Gabonetako II. futbol txapelketa Ibarra futbol zelaian. Deba-goieneko futbol eskoletako gaz-

tetxoek -2002, 2001 eta 2000. urteetan jaiotako neska-mutikoak-jardun dute; Aloña, Bergara, Mondra eta Aretxabaleta elkarrekin gaztetxoek, hain zuzen. Partidu biziak eta emozioz beteak

jokatu dituzte lau egunean eta harmailetan guraso eta lagun asko elkartu dira, eta giro ezin hobea sortu.

Urtarrilaren 3an izan ziren finalak eta txapeldunei Bixente Etxeandia jokalarik eta entrenatzaile handi izandakoak eman zizkien garaikurrak. 2002an jaiotakoan artean, Aretxabaleta A izan zen txapelduna eta Bergara txapeldunordea; 2001ean jaiotakoan artean, Aloña A txapelduna eta Bergara B txapeldunordea; eta 2000n jaiotakoan artean, Mondra A txapelduna eta Mondra B txapeldunordea.

Urte bakoitzeko jokalarik onenek ere jaso zuten saria txapelketan egindako lan bikainagatik. Hona sarituak: Axel Armendia (2002, Aretxabaleta); Karlos Odriozola (2001, Aloña); eta Aitor Kortez (2000, Mondra).

Aretxabaleta Kirol Elkarrekin kideak oso pozik agertu ziren txapelketaren jardunarekin, "eguraldia lagun aparteko giroa izan delako bai partiduetan, bai harmailetan, eta kiroltasuna nagusitu delako". Era berean, eskerrak eman zizkieten Ibarra elkartutako guztiei.



Aretxabaleta taldea, Bixente Etxeandiarekin, garaikurra eskuetan dutela. | M.A.

ESKORIATZAKO

Iñaki Kortazarrek egindako irudiarekin egingo dute bibliotekako orri-puntua

M.A. | ESKORIATZAKO
Orri-puntua egiteko lehiaketa deitu zuen Udal Bibliotekak abenduan eta sei lan aurkeztu zituzten. Epaimahaia dagoeneko elkartu

da lanak baloratzeko eta Iñaki Kortazar eskoriatzarrak egindako *Komiki uholdea* hautatu du irabazle. Komikietan soinuak adierazteko erabiltzen dituzten

letrekin egin du irudia eta Eskoriatzako Udal Bibliotekan 2011n erabiliko den orri-puntua egingo dute horrekin. 250 euroko saria jasoko du Kortazarrek.



2011n erabiliko den orri-puntuko irudia. | IÑAKI KORTAZAR

ARETXABALETAKO



Joxe Olabe ikurrina hartzen dantzarien eskuetatik. | M.A.



Ikurrina jarrita, plaza eta Durana inguruak jendez gainezka daudela. | M.A.

Ikurrina jarri dute Herriko Plaza barrenean

Abenduaren 31 ilunkean egindako ekitaldian jendez gainezka zeuden plaza eta Durana kalea

M.A. | ARETXABALETAKO
Urtea bukatu aurretik jarri gura zuten herritar batzuek ikurrina herrian; baita lortu ere, ekitaldi xume baina hunkigarria eginda abenduaren 31n.

Joxe Olabe jaso
Udal Gobernuak onartu egin zuen orain dela hilabete batzuk eginiko eskaera -hainbat elkarrekin ordezkarik eta alderditako zinegotzi ohien sinadurek babes-tuta-, eta bere gain hartu kostua. Ikurrina jartzeko 12 metroko hagaren zain hainbat aste egon ostean, 2010eko azken egunean gertu zegoen.

Bizarzuri herritik pasatu ostean eta Etxeratek deitutako elkarretaratzea bukatuta koan, sirena hotsak iragarri zuen ekitaldia. Udaletxe inguruan hartu zuten ikurrina sei dantzari, eta txistularien atzetik plazaraino eroan. Txalapartariak egin zituen ongetorria han. Joxe Olabe -1977ko urtarrilaren 19an ikurrina gurean lehenengoz jarri zuten udalbatzako kide zen- jaso zuen ikurrina dantzariak agurra egin bitartean. Ekitaldia bukatzeko, *Hator hator* abestu zuen plaza inguruan batutako jendetzak.



Aramaioko umeak Gabonetako jolasparkean jarritako gaztelu puzgarrietan. | AMAIA TXINTXURRETA

ARAMAIO

Gabonetako ekitaldiei erantzun ezin hobe eman zieten ume eta gaztetxoek

Gaztelu puzgarriek erakarri dute jende gehien, baina neska mutikoek izan dituzte ondo pasatzeko beste aukera batzuk ere, bideojokoak adibidez

MIRARI ALTUBE | ARAMAIO

Gabonetako opor egun asko izan dituzte ume eta gaztetxoek, baina, hala ere, Aramaioko neska-mutikoak ez dira aspertu. Kultura Sailak antolatuta hainbat eratako ekimenak izan dituzte atzo arte; besteak beste, umeendako tailerrak ludotekan, txo-txongilo emanaldia, magia ikuskizuna eta jolasparkea.

Puzgarriek arrakasta

Zalantza barik, arrakasta handiena izan duen ekimena Gabonetako jolasparkea izan da. Joan den martitzenean, urtarrilak 4, egun osoan izan zen zabalik kiroldegian, eta Aramaio inguruko ume eta gaztetxoak ezin hobeto ibili ziren bertan. Txikiendako bi puzgarri handi zeuden, salto egin, eskailerak igo eta txirritatik jaisteko aukerarekin.

Gaztetxoendako, ostera, roko-dromo handia zegoen jarrita, sokekin ondo lotu eta puzgarriaren puntaraino igotzeko. Eta gazteek hain gustuko dituzten Wii jokoetan jarduteko aukera ere izan zuten.

"Umeak gaztelu puzgarriek erakartzen dituzte gehien eta oso gustura ibili dira", adierazi digu Ainara Inuntziagak, Kultura zinegotziak. Eta pozik azaldu da Gabonetako ekimenei herritarrek egin dieten harrerarekin: "Gehienbat, ume eta gazteendako antolatutako egunak dira, bai ludotekako tailerretan, bai magia ikuskizunean".

Gabonak bukatu arren, urtarrilean ere badira ekimenak: umeendako film emanaldiak domeketan; Debagoieneko kirol sarien banaketa hilaren 21ean; eta gazteendako tailerra 29an.

Artxiboa osatzeko argazkiak

Bestalde, Udalak argazki artxiboa osatzeko beka sortu zuen, eta Naia Bailezentzat izango da ardurari hori. Artxibo hori osatzeko, baina, herritarren laguntza eta parte-hartzea eskatu dute Kultura Saileko kideek. Batez ere, 1950. urtea baino lehenagoko argazkiak gura dituzte (berriagoak ere onartuko dituzte): jaietakoak, herrikoak, sasoi hartako bizimodua agertzen dutenak...

Etxean argazki zaharrak izanez gero udaletxera deitzeko -945 44 50 16- edo mezu bat bidaltzeko eskatu dute -itxasokultura@cua-drillazuia.com-. Gura izanez gero Naia Bailez arduraduna etxera joango da argazki bila eta, bestela, astelehenetan udaletxera eroan (16:00-18:00) daitezke. Argazki horien kopiak egingo dituzte, originalak jabeak gorde ditzen.

ANTZUOLA

Xabier Barkeroren omenezkoa Bergarako beteranoek eroan zuten

Alfonso Castro memorialean, bestalde, herriko 68 neska-mutikok hartu zuten parte

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Bergarako beteranoak izan ziren txapeldunak, Antzuolakoak bigarrenak eta Mondrakoak hirugarrenak Xabier Barkeroren omenezko hiruko txapelketan. Antzuolako beteranoek antolatu zuten txapelketa.

Abenduaren 28an, bestalde, Alfonso Castoren omenezkoa jokatu zuten herriko 68 neska-mutikok. Eztalan izan ziren lehiak eta partiduen ondoren dominak banatu zizkieten parte-hartzaile guztiei.

Immersoko bainuetxeak

Bideberri gizarte zerbitzuen mankomunitateak Immersoko bainuetxe programan parte hartu gura dutenendako izene-

mate epea zabaldu du. Bainuetxera otsaila eta abuztua artean joan gura duenak urtarrilaren 15a baino lehen eman beharko du izena. Irailtik abendura bitartekoendako, ostera, maiatzaren 15era arte izango da izena emateko epea.

Izena emateko, udaletxeko gizarte langilearengana joan behar da. Informazio gehiago: www.imserso.com atarian.

Herriko mus txapelketa

Bestalde, Antzuolako mus txapelketa jokatu dute egunotan: lehen kanporaketa urtarrilaren 14an izango da, Mox tabernan, 22:15ean. Bikoteek 20 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeko.



Antzuola, Bergara eta Mondrako beteranoak. | GOIENA

LEINTZ GATZAGA

Indarrean daude 2011ko udal tasak eta zergak

Uraren tasak izan du igoera handiena, eta herritarrek %7,82 gehiago ordainduko dute

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Urrian onartu zituen udalbatzak behin-behinean 2011ko ordenantza fiskalak, eta abenduaren 29an behin betiko. Urte berriarekin batera indarrean daude udal tasa eta zerga berriak.

Hala, ondasun higiezinaren gaineko zerga eta jarduera ekonomikoaren gainekoa %2,1 igo dituzte; baita ibilgailuen gaineko zerga ere. Hori horrela, potentzia txikia duten ibilgailuek (9 zaldi fisikaletik behera) 34,96 euro ordaindu beharko dituzte eta potentzia handia dutenek (20 zaldi fisikaletik gora) 272,97 euro.

Tasei dagokienez, obra txikia egiteko baimenak 44 eta 77 euro artean ordaindu behar dira; eta obra handia egiteko baimenak, 221 eta 448 euro

arte. Komertzio berriak irekitzeko baimena emateak, ostera, %2,1eko igoera izan du; hori horrela, 193,84 euro ordaindu beharko dituzte merkataritza zerbitzuek eta 286,80 euro industria eta ostalaritza zerbitzuek. Igoera handiena, baina, uraren tasak izan du: %7,82 gehiago ordainduko dute herritarrek 2011n.

Zerga eta tasa horien guttien berri abenduaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso dute zehaztasun osoz.

Olioak jasotzeko ontziak

Bestalde, egunotan banatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak etxean erabilitako olioak jasotzeko ontziak. Era berean, ontzi horiek uzteko edukiontzia berria jarri du herrian.

ELGETA

Edurne Egaña diputatua herritarrekin elkartzeko da gaur

Aldundiaren Kudeaketa Planaren berri emango du eta elgetarren ekarpenak jasoko ditu

M.A. | ELGETA

Foru Aldundiko Lehendakariatzaiko eta Foru Administrazioiko Departamentuko diputatu Edurne Egaña Elgetan izango da gaur, hilak 10. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan elkartzeko da herritarrekin (18:30). Hainbat azalpen emango ditu diputatuak, eta elgetarrek galderak egiteko tartea izango dute. Bertan parte hartze-

ko aurrez jakinarazi behar da, 943 11 22 90 telefono zenbakira deituta.

Parte-hartzea bultzatzen

Gipuzkoa Eraikitzen egitasmoaren barruan antolatutako batzarra da gaurkoa eta Diputazioak azken hiru urteotan landutako Kudeaketa Planaren berri ematera dator Egaña. Plan horretan

zazpi helburu zehaztu dituzte, tartean komunikazio azpiegiturak indartzea, eta ezarritako helburuen %87,6 beteta daude. Bilera hainbat talde eta elkartetako kideak gonbidatu ditu Diputazioak; izan ere, helburua da herritarrekin elkartzeko eta haien ekarpenak eta iritziak jasotzea.

Elgetako Udala, gainera, sartu berria da herritarren parte-hartzea bultzatzea eta herritarren iritzia jasotzea helburu duen Aldundiaren plan horretan eta hainbat inkesta eta lan bilera egin dituzte azken hilabeteotan. Galdetegiaren ondoren jasotako emaitzak eta burututako lan bileretatik ateratako ondorio nagusiak memoria baten jasoko dituzte.

MERKEALDIAZ

Gain,

Irabazi:

1.000€

+1.000€

+1.000€

Sartu:

www.centrocomercialgorbeia.com

Astero-astero 1.000€-ko sari bat irabaz dezakezu erosketa-txarteletan, 20€-tik gorako erosketa eginez eta gure web-orrian izena emanaz.

Promozioa urtarrilaren 30era arte egongo da indarrean.
Guztira 1.000€-ko 3 sari erosketa txarteletan zozketatuko dira.



IMAGEN21

UDA garaile joko gutxi eta tentsio handia izan duen norgehiagokan

Oinatz Agirrek korner baten egindako erremate batekin, hiru puntuak etxean



JOKIN BEREZIARTUA | ARETXABALETA
Lehen zatiaren amaiera aldera Oinatz Agirre aurrelariak korner baten bidez egindako golak eman zizkion hiru puntuak UDARI. Joko gutxiko eta tentsio handiko partidua izan zen eta bigarren zatiaren lehen minutuetan Akaitz Garairen kanporatzeak baldintzatu zuen norgehiagoka.

Gezurra badirudi ere UDAK hobeto jokatu zuen bigarren zatian. Hau da, futbolaren esatera bete egin zen beste behin: UDAK

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Iker, Amutxastegi, Akaitz, Kerman, Etxabe, Aitor, Iñaki (Gilen), Aritz, Oinatz (Jokin), Andoni (Aitor) eta Jon (Raul).

Trintxerpe: Asier, Asier A., Aitor (Iker), Iñigo (Gorka), Raul, Unai, Patri, Ruben (Jonathan), Alvaro, Aitor C. (Unai), Asier I (Angel).

Epailea: Ibai Rezola jauna. Ez zuen egun ona izan. Hala ere, ez zituen ikuslegoaren protesta guztiak merezi izan. Txartel larregi ateratu zituen; ikusleek oso haserre amaitu zuten.

hobeto jokatu zuen hamar jokalarirekin hamaikarekin baino.

Trintxerpe hobeto hasi zen

Trintxerpe hobeto sartu zen partiduan. Zelaian hobeto jarrita eta etxeko taldea baino baloi gehiagorekin. Aulkian aspaldiko ezagun bat izan genuen: Josu Zubia aretxabaletarra izan zen kanpo-koen aulkian. Hala ere, minutuak aurrera joan ahala, gailentzen hasi zen UDA eta, aukera garbirik izan ez arren, etxekoena izan zen lehen zatiaren bigarren parteko baloi jabetza. Hala, korner baten heldu zen partiduko gol bakarra, 38. minutuan: Oinatz Agirrek ezin hobeto errematatu zuen baloia; eskuin hankarekin eta boleaz, ederto gurutzatuta. Halaxe heldu zen partidua atse-denaldira.

Bigarren zatiko hirugarren minutuan epaileak Akaitz Garai egotzi zuen arren -bigarren txartel horia atera zion zelai erdiko falta baten- aretxabaletarren jokoak hobera egin zuen. Ez zirudien Trintxerpe jokalaria bat gehiagorekin jokatzen zebilenik. 4-4-1 eran jarrita, oso ondo eutsi zuen etxeko taldeak. Trintxerpek izan zuen baloia baina apenas heldu ziren Iker Agirregabiriaren atera. Eta ez hori bakarrik, aukera garbienak UDARENAN izan ziren. Agirrek, esaterako, hainbat aukera garbi izan zituen lasaitasuna emango zuen bigarren gola sartzeko, baina guztietan kanpora bidali zuen baloia.

Epailearekin oso haserre

Norgehiagokako protagonisteta-ko bat epailea izan zen. Ez zuen egun ona izan, baina Ibarrako zaleen protesta guztiak ez zituen merezi izan. Akats batzuk egin zituen, esaterako, Agirrerri bigarren zatiko 11. minutuan egindako falta garbi bat ez zuen adierazi: azken jokalariek egin zuen falta eta txartel gorria izan behar-ko litzateke.

Zaleez gain, Rafa Barrutia UDAko entrenatzailea ere ez zuen gustura izan epailearen lanarekin; hura ere kanporatu zuen.



Oinatz Agirre aurrelaria, baloia buruz jotzeko lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

ARITZ IGARTUA | UDAKO JOKALARIA

"Jokalaria bat gutxiagorekin oso ondo eutsi diegu"

Atzo lortutako hiru puntuak garrantzitsuak izan direla aitortu zuen Aritz Igartuak partidua amaieran. Epailearen gainean galdetu, lehiako protagonista izan zela adierazi zuen. **Bigarren zati osoa hamar jokalarirekin eta irabazi, hala ere. Pozik?** Bai. Beste munduko partidua egin barik hiru puntu garrantzitsu lortu ditugu eta sailkapenean Trintxerperen gainetik gaude dagoeneko. 1-0 irabazten joan arren nahiko zaila jarri zaigu partidua bigarren zatia hasi bezain pronto jokalaria bat gutxiagorekin geratu gara-eta. Hala ere, oso ondo eutsi diegu eta ez hori bakarrik, aukerak ere sortu ditugu.



J.B.

Justua izan al da emaitza?

Nik esango nuke baietz. Hobeto hasi dira eta lehen zatian apenas egin dugu aukerarik. Gola aukerarik egin barik sartu dugu, korner baten. Baina bigarren zatian egin dugun lana kontuan hartuta, emaitza justua izan dela esango nuke.

Hamarrekin hamaikarekin baino hobeto jokatzen dela dio futbolearen aski ezaguna den esakerak...

Gaur behintzat bete egin dela esan behar, izan ere, bigarren zatia dezentte hobea egin dugu.

Futbol zelaian zein harmailetan izan den tentsioa ikusita, ezin da galdetu barik geratu: nola ikusi duzu epailearen lana?

Partiduko protagonista nagusia izan dela uste dut. Txartel asko atera dizkie bi taldeei eta joko nahiko gogorra izan den arren, ez dut uste horrenbeste txartel ateratzeko moduko norgehiagoka izan denik.



JOSETXO ARANTZABAL

Azken txanpan penaltiz sartuta, Bergara garaile

Asko sufritu zuen Bergarak Zumaia koren aurka hiru puntuak Agorrosinen gera zitezen. Partidu borrokatua izan zen: zelai erdiko joko asko eta ikuslearendako norgehiagoka aspergarria. Puntuen beharrekin etorri zen kanpoko taldea eta igarri zen. Oskar Maiztegi adierazi zuenez, Zumaia "oso talde gogorra" da, eta hori argi utzi zuten. Talde bakoitzak puntu bana eraman behar zuela zirudienean Unai Agirrerri egindako penaltia adierazi zuen epaileak 87. minutuan. Agirrek berak sartu zuen gola.

Mondraren merezitako porrota eta Aloñaren ezustekoa Pasajesen aurka

Zerrajeroek 2-0 galdu zuten Hernanin; Aloñak, berriz, partidu borobila egin zuen Pasaian (1-2)

J.B. | ARRASATE

Hirugarren Mailara igotzea helburu duen Pasajesen aurka ezustekoa eman zuen Aloñak. Meritu handiko garaipena, izan ere, bigarren zati osoa jokalaria bat gutxiagorekin jokatu zuten. Atzean ondo jarri eta kontraerasoan irtetea izan zen Aitor Oruetaren planteamendua, eta jokalariek ezin hobeto islatu zuten hori futbol zelaian. 20. minutuan Aritz Garmendiak sartutako golaren ostean, atse-denaldiaren atarian berdinketa lortu zuen Pasajesek, Josu Juaristik egindako penalti bati esker. Jokaldi horretan txartel gorria ikusi zuen Juaristik. Banako berdinketarekin egin

zion aurre Aloñak bigarren zatiari. Defentsan are sendoago, kontraerasoan jarraitu zuen Aloñak: 88. minutuan heldu zen oñatiarren bigarrena, Unai Moyuak sartu zuen gola.

Mondrak larregi barkatu zuen

Bestalde, Iban Rodriguezen mutilek bolada txarrarekin jarraitzen dute. Rodriguezen arabera, justua izan zen porrota: "Hainbat aukera garbi izan ditugu baina ez dugu bat bera ere sartu. Hori izan zen, hain zuzen, porrotaren gako: Mondrak larregi barkatu zuen. Eta futbolaren legea gailendu zen beste behin: barkatzen duenak ordaindu egiten du gero."



Realeko lehen taldearen entrenamendu saio bat, Zubietan. | REALSOCIEDAD.COM

FUTBOLA

Realak Aretxabaletan entrenatuko du gaur

Ibarreko gazteek txuri-urdirak entrenatzen ikusteko aukera paregabea dute, 10:15ean

ANDER MONEDERO | ARETXABALETA
Realaren entrenamendua Zubietan beharrean, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian izango da gaur. Zaleek taldeari ematen dioten babes eskertzeko asmoz, Gipuzkoako zenbait herritan lan saioak egingo dituzte aurten ere. Aretxabaletan egingo dute entre-

namendu horietan lehenengoa. Debagoieneko umeentzako urteko lehen eskola eguna da, baina zaleek kale egingo ez dutela uste du Realeko zuzendaritzak.

Txuri-urdirak zapatuan Sevillaren aurka galdu ondorengo lehenengo entrenamendua izango da gaurkoa. Saioa bukatu

ostean, Astorek Arrasaten duen egoitza bisitatuko dute.

Hasieran, Arrasaten

Realaren hasierako asmoa lan-saioa Arrasaten eta Gabonetako opor egunetan egitea zen, baina ez dira ados jarri Mondrako zuzendaritzarekin.

Realak urtarrilaren 4an egin behar zuen entrenamendua Mojategin, baina azkenean atzera bota zuten saioa. Txuri-urdirak gaurko eguna proposatu zuten, baina gaurkoa saioa egiteko egunik aproposena ez dela uste du Mondrako zuzendaritzak. Nahiago dute beste egun baten etortzen badira.

FUTBOLA

Atzealdeko akatsen erruz jipoi galanta jaso zuen gazteen Liga Nazionaleko UDAk Real Unionen aurka

Juan Antonio Kruzen mutilek jipoi galanta jaso zuten zapatuan Irungo Real Unionen aurka: 6-1. Lehen zatian hiru akats larri egin zituzten aretxabaletarrek atzealdean eta atsedenaldira 3-0 joan ziren. Bigarren zatian ez zuten erreakzioarako gaitasunik erakutsi, alderantziz: 20. minuturako 6-0 zihozten. Entrenatzaileak horrela definitu du porrota: "Maila honetan atzealdean egindako akatsak garesti ordaintzen dira. Orain arte jokatu dugun partidua txarrenetarikoa izan da, zalantza barik". Aretxabaletarren gola Gorka Garciak egin zuen.

ARETO FUTBOLA

Kalañatasaray mutiletan eta Bere Biziko Espioiak nesketan irabazle Oñatin jokatu den 24 ordukoan

Asteburuan 24 orduko areto futbol txapelketa jokatu da Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Aurreko urteetan baino jende gutxiago animatu da parte hartzera aurtengoan: mutiletan bederatzi izan dira parte hartu duten taldeak eta nesketan berriz lau. Antolatzaileren esanetan, lehiaketa zubian antolatzeak zerikusi handia izan du horretan. Mutiletan Kalañatasaray izan da garaile eta nesketan Bere Biziko Espioiak. Sari banaketan une hunkigarria ere izan zen, Gabonetan hildako eta areto futboleko jokatzeko zuten Andoni Santos gazte oñatiarra gogoan izan zutenean.

PILOTA

Aitor Mendizabal antzuolarra, Euskadiko elite mailako lau t'erdiko txapeldun berria

Aitor Mendizabal antzuolarra da Euskadiko elite mailako lau t'erdiko txapeldun berria. Mendizabalek 22 eta 18 menderatu zuen Asier Beitia bizkaitarra. Finala Getxon jokatu zuten eta, nahiz eta partidaren erdira arte nahikoa parekatuta joan, azken txanpan antzuolarrak Beitia estutu eta garaipena poltsikoratu zuen. Hasieran, seina berdindu eta gero, Beitia aurre hartu zion eta 7 eta 13 galtzen izan zen Mendizabal. Ondoren, hamaseina berdintzea lortu zuen eta, hamazortzina berdindu ostean, lau eta hutseko partzial bati esker nagusitu zen Mendizabal. Atzoko garaipenarekin, bi aldiz jantzi du Aitor Mendizabalek Euskadiko lau t'erdiko txapela.



Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Urtarrilak 21 ostirala
Aramaio Kultur etxean | 19:00

Debagoieneko nork merezi du herritarren saria?

egin zure proposamena!

www.kirolsariak.com

ANTOLATZAILAK



BABESLE NAGUSIA



BABESLEAK



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



KOORDINATZAILAK



SASKIBALOIA

Ezohikoen ekarpen onarekin, galtzen joan baina garaipen erosoaz azkenean

Sustrai Aloñak 92 eta 82 irabazi zion Askartzari, eta lider jarraitzen du

FITXA TEKNIKOAK

Sustrai Aloña Mendi: Gamarra (25), Mallabiabarrena (15), Zabaleta (11), Lizarralde, Iñigo Biain (19) –hasierako bostekoa–, Mikel Biain (13), Uribetxebarria (2), Exposito (2) eta Osa (5).

Askartza: Murua (13), Aurtenetxea (7), Gascon (10), Garcia (5), Sistiaga (15) –hasierako bostekoa–, Gonzalez (15), Vela (7), Egilaz (2), Labeaga (2) eta Montero (6).

Laurdenetako emaitzak: 21-18; 39-43; 71-58 eta 92-82.

JULEN IRIONDO | OÑATI

Hirugarren laurdenetik aurrera, alde handiarekin eta eroso jokatuta arren, Sustrai Aloña Mendiren eta Askartzaren arteko partiduak ez zuten hasiera erraza izan etxe-koendako.

Partiduko aurreneko minutuetan kanpoko jaurtiketetan ondo ibili ziren bizkaitarrak, eta defentsan Aloñakoen barruko jokoa bikain geratzea lortu zuten gainera. Hori ikusita, kanpotik



Aloñako eta Askartzako jokalariek errebotea hartzeko borrokan. | JULEN IRIONDO


jaurtitzeari ekin zioten oñatiarrek ere, baina eskumuturra ez zuten nahikoa bero antza: "Lehenengo zatia hiru hirukorekin amaitu dugu, eta hiruko marratik huts asko eginda", zioen amaieran

Xabier Igartua Sustrai Aloña Mendiren entrenatzaileak.

Ezohikoen erantzun ona

Oñatikoeak, gainera, baja garrantzitsuak zituzten zapatuan, eta

horri gehituta Iñigo Biainek agudo pilatu zituela faltak, normalean minutu gutxi izaten dituzten jokalariek protagonismo berezia hartu zuten, eta ohi baino lehenago gainera, bigarren laurde-

**IÑIGO ZABALETA**

SUSTRAI ALOÑAKO JOKALARIA

"Jokatutako azken lagunartekoan eta gaur apur bat behera egin dugula ikusi da. Kanpoko jaurtiketan asko bota baina asko egin dugu huts, eta euren kontraerasoetan kosta egin zaigu defentsa lanera itzultzerakoan."

nerako: "Ezohikoeak oso maila ona eman dute, eta lortu dugu atsedenaldira puntu asko atzetik ez joatea".

Emaitza 39 eta 43 zen lehen bi laurdenen amaieran. Bigarren zatian nabarmen hobetu ziren etxeko jaurtiketa portzentajeak, eta beste alor guztietan ere hobera egin zuten gorrien jokoak.

Bizkaitarrek, ostera, ez zuten lehenengo zatian adina asmatu –atsedenaldirako zortzi hiruko zituzten sartuak–, eta Igartuaren mutilek hartu zuten jokoaren kontrola. Horretan zeresana izan zuten defentsa gogortu izanak ere, errebotean nagusitu. Hirugarren laurdenean 15 puntu inguruko alde hartu eta estutasunik gabe amaitu zen partidua Sustrai Aloña Mendirentzat.

SASKIBALOIA

Ardoiri irabazi eta goian sartzeko borroka bete-betean murgildu da MU

Bana-banako defentsarekin eta erasoan ondo jokatuta irabazi zuten

J.I. | ARRASATE

Duela hiru jardunaldi ezinezko zirudiena gertuago ikusten dute orain Mondragon Unibertsitatekoak: ligaren aurreneko fasea saiklapenaren erditik gora amaitzea, bigarreneko onenen mul-

tzoan sartzeko eta, ondorioz, denboraldi erdirako mailari eustea ziurtatuta edukitzea, alegia. Zapatuan Ardoiri irabazita eta Askartzaren porrotarekin, datorren jardunaldian elkarren arteko irabazita postu horietan kokatu-

ko litzateke Arrasateko taldea.

Ardoiren aurkakoa uneoro izan zuten kontrolpean MUKoek, eta beti joan ziren aurretik markagailuan, hamar puntutik behar-rako aldeekin lehen zatian –39 eta 32 atsedenaldira–, baina hamabostetik gorakoekin ere bai bigarrenean –75 eta 60 amaieran–.

Defentsako lan ona

Josu Larreategi entrenatzailea gustura geratu zen taldeak defentsan egindako lanarekin: "Lortu dugu zonakakoa erabili gabe, bana-banakoekin aurkaria 60 puntutan uztea. Beste partidu batzutan baino hobeto ibili gara, nahiz eta ez dugun jarraikortasunik izan gaur ere".

Barruko jokoa tarteka min egin arren, Ardoiko jokalariek ez ziren fin ibili kanpoko jaurtiketetan, eta errebotean ere Arrasatekoak izan ziren nagusi. Erasoan, berriz, boteko jokorik gabe, baloia batera eta bestera azkar mugituz eta blokeo gogorrak egin ez jokatuta zuten Larreategiren mutilek, eta astean zehar landutako emaitza eman zuten. Entrenatzaileak Kintanak, Anasagastik eta Atxak egindako lana nabarmendu zuten.



SASKIBALOIA

JOSETXO ARANTZABAL

Azken segundoko garaipena

Bikain bideratuta zuten partidua galtzear egon zen Eskoriatza Internazionalen kontra. Hamabost puntuko errenta izatera heldu ostean, kanpoko erreakzioak eta etxeko falte eta lesioek iraultza eraman zuten markagailura. Puntu bat atzetik zirela, segundo baten faltan egin zuten saskiratzea eskoriatzarrek, 45 eta 44 irabazteko. Garaipen garrantzitsua, lehenengo lauen artean sartzeko borrokan.



Erasoan lan polita egin zuten zapatuan MUKo jokalariek. | JOSETXO ARANTZABAL



Penalti jaurtiketetan aditua den Mikel Plazaolak partidu bikaina egin zuen zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOIA

Sailkapenean bigarrena zenak sendo izerdituta berdindu, azken segundoan

- ▶ Defentsan ondo eta erasoan bizkor, partidu bikaina egin zuten bergarrek
- ▶ Emozioz betetako lehia izan zen: azken segundoan berdindu zuen Askartzak

EMAITZA

SORALUCE BKE

33-33

QUIRON ASKARTZA

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Intentsitate eta emozioz betetako partidua jokatu zuten zapatuan Soralue BKEk eta Askartzak. Bigarren sailkatu moduan heldu zen talde bizkaitarra, baina sendo izerditu behar izan zuen Bergararik puntu bat eramateko. Kan-

poko taldea etxekoa baino hobeto sartu zen norgehiagokan eta lehen zatiko erdialdera arte hiru tantoko aldea mantendu zuten (5-8/8-11/10-13). Hala ere, lehen zatiko bigarren partean suspertu egin ziren mahoneroak eta atsedenaldira aurretik joatea lortu zuten

JOSETXO MUNIATEGI | ENTRENATZAILEA

"Orain arteko partidurik bizkorrena egin dugu; oso ona da lortu dugun puntua"

Pozik zegoen bergararren entrenatzailea taldeak egindako lanarekin. Lortutako puntua ona da, haren ustez.

Nola ikusi duzu zure taldea?

Oso partidu ona egin dugu. Erasoan, behintzat, orain arte egin dugun partidurik bizkorrena izan dela esango nuke. Aldakorra izan da norgehiagokak: eurak hobeto irten dira eta gu oso motel irten gara. Gero, baina, neurria hartu diegu eta aurretik ere jarri gara. Beldurra nion bigarren zatiaren hasierari, baina ondo irten gara.

Bigarren zatian ondo hasi zarete, baina beheraldi bat ere izan duzue.

Hala da. Fase baten euren jokalaria onenak atera dituzte eta orduan min askotxo egin digute. Une horretan partidutik irten gara eta markagailuan aurretik jartzea lortu dute. Azken minutuan gol jarria izan da bi ateetan; finean, lortu dugun puntua oso ona da.



Muniategi, lehiaren ostean. | J.B.

Urtea ondo hasi duzuela esan daiteke, beraz.

Gabonetako etenaldiaren ostean, bigarren sailkatuaren aurka berdintzea ez dago batere txarto. Hurrengo bisita Arrasatera: liderak dira eta kanpoan nahiko txarto gabiltza. Ea emaitza positiboren bat lortzen dugun...

Ford Mugarri, lider sendoa

Ford Mugarri, bestalde, sendo jarraitzen du lidergoan. Zapatuan 22-28 irabazi zuten Basaurin, nahiko erraz. Arkaitz Masip jokalaria arrasatearraren arabera, partidu eskasa egin zuten: "Erasoan ondo aritu gara, baina defentsako lana ez da ona izan; orokorrean, erritmo barik aritu gara". Talde gaztea da Basaurikoa eta Masipek adierazi duenez, esperientzia falta igartzen zaie.

ARETO FUTBOLA

Berdinketa "gazi-goza" lortu zuen Eskoriatzak Lagun Onaken aurka (5-5)

2-4 galtzen joan ostean, 5-4 jarri ziren etxekoak; hala ere, ezin lehia irabazi

J.B. | ESKORIATZA

"Sentsazio gazi-goza geratu zaiugu partiduen ostean. Goza, sailkapenean gure aurretik eta bolada onean zetorren Lagun Onak taldearen aurka berdindu dugulako; eta gazia, markagai-

luari buelta eman ostean, azken txanpan garaipenak ihes egin digulako". Jon Barandiaran Eskoriatzako jokariaren hitzak dira, zapatuan Intxartxueta kiroldegian jokatu zuten partiduen gainean.

Emaitza justua

Areto futboleko askotan gertatzen den moduan, gorabehera asko izan zituen zapatuko norgehiagokak. Ez ziren ondo irten etxekoak: 3. minuturako 0-2 zihoazen. Hala ere, erreakziorako gaitasuna erakutsi eta hamar minututan berdintzea lortu zuen Eskoriatzak. Gero, Galdakaoko Lagun Onak taldea jarri zen berriz ere aurretik (2-4), baina Eskoriatzako taldeak buelta eman zion beste behin markagailuari, 5-4 irabazten jartzearino. Baina amaierarako hiru minutu eskas falta zirenean, berdinketa lortu zuten galdakarrek.

Barandiaranen arabera, "justua" izan zen azken emaitza. Azken minutuak jokalaria bat gutxiagorekin egin zuten etxekoeak eta fisikoki behera egin zuten; hori ondo aprobetxatu zuen Lagun Onakek. Aratz Kortazar -bi gol-, Asier Souto -bi gol- eta Julen Ibabe -gol bat- izan ziren Eskoriatzako taldearen golegileak.

Barandiaranek esan duenez, Gabonetan ondo egin dute lan eta bolada onean dago taldea. Hori frogatzeko aukera izango dute datorren jardunaldian Arrigorriagako Ortzirri taldearen aurka.



Aratz Kortazar, aurkari bati baloia kendu ostean, erasorako gertu. | J.A.



ARETO FUTBOLA

JOSETXO ARANTZABAL / JOKIN BEREZIARTUA

Arizmendi-Eskoriatzak, lan bikaina

Zapatu goizean Eskoriatzako Intxartxueta kiroldegian benjamin eta alebin mailan jokatu ziren partiduetan lan bikaina egin zuen Arizmendi-Eskoriatzak. Iruñeko Triman Xota eta Santurtziren aurka lehiatu ziren bi mailetan: benjaminetan bigarren geratu ziren -Triman Xotak erraz irabazi zituen bi lehiak- eta alebinetan, berriz, lehen postuan amaitu zuten. Goiz osoan giro ederra izan zen harmailtan.

Xabi Igartua | Sustrai Aloñako entrenatzailea

"Hiru urte elkarrekin eman ostean, ia-ia buruz jokatzeko ikasi du taldeak"

Xabi Igartua eta Aloñako saskibaloiko talde nagusia saritu dituzte Oñatiko kirol sarietan; bigarren maila probintzialetik lehen nazionalera igo da taldea azken hiru urteotan

EDU MENDIBIL | OÑATI

Urteko kirolari eta kirol talde onenak saritu zituen Oñatiko Udalak abenduaren 23an. Besteak beste, Xabi Igartua eta Sustrai Aloña Mendi saskibaloiko taldea izan ziren saritutako en artean, iaz egindako lan bikainagatik. Sustrai Aloñak lortutakoa ez da makala: lehen maila nazionalera igoera lortu ondoren, lider ditugu sailkapenean. Askartzari 92 eta 82 irabazi diote zapatu honetan Zubikoa kiroldegian. Azken hiru denboraldiotan igoera lortu eta gero, ondo baino hobeto moldatu dira oñatiarrak kategoria berrira. Xabi Igartua entrenatzailea (28 urte) dugu arrakastaren protagonistetako bat. MUn Zurututzaren eta Merinoren laguntzaile jardun ondoren, hiru garren urtea du Aloñan oñatiarrak.

Pozik jasotako sariarekin?

Bai; isileko lan handia dago gure moduko talde baten atzetik eta horrelako errekonozimendu bat jasotzea beti da pozgarria.

Hiru urtean, 2. maila probintzian jokatzetik lehen maila nazionalera jokatzera egin duzue salto. Ez da gutxi, ala?

Bai, lehen maila probintzian errenuntzia batzuen ostean iritsi ginen, eta, hasiberriak izan arren, liga irabazi eta lehen maila autonomikora igo ginen. Eta aurreko denboraldian ere liga txapeladunak izatea lortu genuen.

Eta aurten ere sailkapeneko aurrealdian... Zein da, ba, taldearen sekretua?

Bakoitzaren dohain nagusiei etekina ateratzen eta ahultasunak ahalik eta ondoen ezkutatzeko ikasi dugula. Talde bat bezala jokatzeko ikasi dugu, azken baten, eta horretan zerikusirik handia izan du talde berari eutsi izanak. Hiru urte daramagu elkarrekin entrenatzen eta jokatzeko, eta, nolabait esatearren, ia buruz jokatzeko ikasi dugu. Bukaera estuko partiduetan ere ez gara larritzen; gure jokoa konfiantza eta segurtasuna daukagu eta beste talde batzuk, aldiz, azken minutuetan, partidua erabakitzen direnean, urduriago jartzen dira, agian... Ez gara beldurtzen markagailua estu dagoenean eta horri esker partidu asko atera ditugu aurrea.

Hor aurrean egonda, zein da taldearen helburua denboraldi bukatari begira?

Dagoeneko lortu dugu mailari



Xabi Igartua entrenatzailea joan den abenduaren 23ko sari banaketa ekitaldian, eskuratuako trofeoarekin. | MIREIA BIKURIA

eustea, eta horixe zen gure hasierako helburua. Hemendik aurrera hauxe izango da: etxeko partiduetan ahalik eta gogorren egitea Zubikoara bisitan datozen taldeei eta kanpoko partiduetan ere gozatu eta emaitza onak lortzen ahalegindu. Logikoa den moduan, liga irabaztea ezin da izan gure helburua, talde oso onak daudelako tartean eta hemendik udaberrira bitartean beherraldia izan dezakegulako.

Zeintzuk izan dira aurkari indartsuenak orain arte? Nortzuk ikusten dituzue faborito liga eskuratzeko lehian?

Hiru aipatuko nituzke: Easo Donostiako taldea eta Gasteizko bi: Baskonia eta Seki.

Eta nola definituko zenuke zure taldea? Zelako jokoa egiten duzue?

"Joko erasokorra egiten ahalegintzen gara; erasoan ibiltzen gara ondoen"

Oso joko erasokorra egiten ahalegintzen gara. Defentsan baino hobeto ibiltzen gara erasoko jokaldietan, eta, hori dela eta, gure kasuan, puntuazio altuko partidua izaten dira gehienak. Joko azkarra eta erasokorra egiten saiatzen gara beti.

Harrigarria bada ere, Zubikoan ez duzue partidurik galdu azken bi denboraldiotan...

Azkena orain dela hiru urte galdu genuen, lehen maila probintzian, hain zuzen. Etxean sekulako indarra erakutsi dugu, eta zaleei euren laguntza eskertu beharrean gaude.

Gure mailan, jende gehien Zubikoara etorriko da, ziurrenik; harmailak jendez lepo egoten dira eta norberaren herrian jendez laguntza izan, partidua aurrera atera eta giro hori ikus-

"Zubikoa jendez lepo egoten da eta eskertzeko da zaleen laguntza"

tea... horrek ez dauka preziorik guretzat. Amateur mailako saskibaloiko onenetakoa ikusi ahal izateko zortea dugu Oñatin, maila honetatik gora dagoena erdi-profesionala izaten delako. Pitin bat utopikoa da guretzat lehen maila nazionalera aritzea, eta zaleek ere badute zerikusia lortutako horretan, zalantzarik ez. **Orain jaioterrian, Oñatin zaude, baina aurretik MU taldean aritu zinen...**

20 urterekin hasi nintzen entrenatzaile lanetan, Oñatin; belarriko lesio larri bategatik jokatzeari utzi behar izan nion eta entrenatzaile izatera bideratu nuen nire ibilbidea.

Oñatin, Aloñan, hasi nintzen azpiko mailetan, baina ikasketak zirela-eta utzi egin behar izan nuen handik gutxira. Geldialdi luze samar baten ostean, Arrasaten bi urte eman nituen, MU taldearekin, Gorka Zurututzaren eta Iñaki Merinoren laguntzaile. Oso urte onak izan ziren haiek ere; lehenbizikoan, EBArako igoera faserako sailkatu ginen eta bigarrenengo EBArako igoera

lortu genuen. Arrasaten emandako urteak erabakigarriak izan ziren; ordura arte, zelanbait esateko, formazioz entrenatzailetzat neukalako neure burua. Arrasaten konpetizioa gertutik ezagutu nuen, eta entrenatzailearen lanean sakontzeko baita ere.

Telebistatik zein zuzenean partidu asko ikusten dituen horietakoa zaitugu?

Ez pentsa. Ez naiz saskibaloiko profesionalaren jarraitzailea... NBA ez dut jarraitzen, adibidez, ACB Espainiako liga zertxobait... Baina ez zait askorik gustatzen telebista aurrean jarri eta partiduak ikustea.

Gure ligako partidua ikustea atsegin dut gehien. Nahiago izaten dut gure kontra jokatu behar duten taldeak ikusi eta aztertzea. Horrela ikasten da gehien, dudarik ez. Horregatik esan dizut isileko lan handia dagoela gure taldearen atzetik, eta eskertzen da errekonozimendua jasotzea, aurtengo Oñatiko kirol sarietara gertatu den moduan. Poz handia hartu dugu taldea osatzen dugun guztiok sari hori jasotzeagatik.

Eskola partikularrak: denbora jakin baterako laguntza baino ez

Adituen arabera, emaitzak lortutakoan eskola horiek bukatzea komeni da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Adituen arabera, eskola partikularrak denbora baterako soluzioztat hartzea komeni da; lortu nahi diren emaitzak lortutakoan,

bukatu egingo dira. Bestalde, irakasle partikularra ere ondo aukeratu behar da eta umeari erakutsi beharko dio lehenik eta behin nola ikasi eta bere lana

nola antolatu. Bestetik, ez dugu semea edo alaba eskola partikularretara bidaliko haserrealdi batengatik.

Patxadaz aztertuko dugu egoera eta baloratu egin beharko dugu zein irakasgaitan dabilen atzeratuta.

Haurri gauzak garbi

Haurrak jakin egin behar du laguntza hori ez dela betiko izango. Ezin du pentsatu eskolan ezer egin gabe egon daitekeela gero etxean eskolan emandakoa ikasiko duelakoan. Komeni da gurasoek irakaslearekin sarritan hitz egitea, seme-alabaren lorpenak kontrolatzeko.

Lortu nahi genuen helburua lortu ahala, eskola batetik besterako denbora tartea handituz joango gara, azkenean eskolak guztiz kendu arte.



Irakasle partikularrak lana antolatzen erakutsiko dio haurri. | ARGAZKILARIA



Umeak jolasean. | GOIENA

"Edozein adinetan, umeez beti dute lotura bat ama biologikoarekiko"

Ume Alaia Gipuzkoako adopzio-familien elkarte da; haiekin egin dugu berba

M.B. | BERGARA

Ume Alaia elkartearen argi dute: "Adopzioa hasten da trauma baten ondorioz. Inork ez du aukeratu adoptatua izatea". Adoptatzen diren umeez behar bereziak dituzten umeez direla gogoratzen dute eta gaineratzen dute denek daramatela motxila bat gainean. "Edozein adinetan, umeez beti dute lotura bat ama biologikoarekiko. Hori eteten bada, horrek mina eragiten du eta gabeziak sortzen dira. Gabezia horren ondorioak aurrerago aterako dira arazo moduan. Gure lana da jakitea atzetik istorio hori dagoela eta ondorioz jokatzeko".

Psikologoak garrantzitsuak

Psikologoaren lana oso garrantzitsua da adopzio prozesuetan. Umeek sarri esaten dute: "Gaizki portatzen banaiz bueltan bidaliko naute, ez nauzue maite, zuek ere utziko nauzue...". Horrelako adierazpenek haurren beldurra adierazten dituzte. Ez dira xantaia emozionala eta hori gurasoek ondo ulertzea oso garrantzitsua da. Haur horiek benetan abandonatuak izan dira, maitasun falta sentitu dute eta luzaro irauten du beldur nagusi horrek. Umeak etengabe tiraka ibiliko dira harremana frogatzen.

Adopzio gurasoak

Gurasoak ere itxaronaldi luze batetik datoz. Infertilizazioak, galerak... mina ekarri du horrek ere. Gainera, adoptatu ahal izateko *adoptabilitate* eta *idoneidade* izeneko frogak gaintu behar izan dituzte. Itxaronaldia luzea da, baina ez da zailena.

Adoptatuen nerabezaroa

Nerabezaroa guztiondako da garai korapilotsua. Emantzipazio momentua da, identitatearen eraikuntza garatu behar dute haurrek eta zentzu horretan haur adoptatuek lan bikoitza egin behar dute. Alde batetik, familia adoptiboarekiko identitate eraikuntza egin behar dute, eta bestetik, familia biologikoarekiko identitate eraikuntza. Zailtasun handiagoa dute. Ez dute ispilu biologikorik eta nerabezaroak ekartzen du traumaren berrirakurketa, oso gogorra eta arazo latzak dakartzana. Gainera, arrazakeria esperientziak daude. Kalte handia egiten dute. Gurasoen zeregina da haurra prestatzea.

Adituen esanetan, aurreneko egunetik jakin behar du adoptatutako umeez bere egia. Familia adoptiboak presente izan behar du familia biologikoa eta errespetatu egin behar du.

Wikipedia balioak transmititzeko eta konpetentziak garatzeko tresna da

"Lankidetzaren eredu bat proposatzen du, eta aktibotasuna bultzatzen du", dio adituak

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Wikipedia Internet bidezko entziklopedia libreak badu ukatu ezin zaion izaera hezitzaile bat, balioak transmititu eta konpetentziak garatzeko ezaugarriak dituen tresna baita; horrela esaten du Iratxe Esnaola teknologia berrietan adituak *Guraso.com* atarian.

Lankidetzaren oinarritua

"Wikipedia edukietatik harago doa: lankidetzaren eredu bat proposatzen du eta pertsonaren aktibotasuna bultzatzen du, indarra ezagutzaren sorkuntzan eta elkarlanean aritzearen garrantzian jarrit", esaten du. Wikipedia lankidetzaren oinarrituta egotea, ikasleen jakin-mina elikatzea eta ikaslea ezagutza-sortzaile bihurtzea eta beste ezaugarri batzuk aipatzen ditu adituak.



Wikipediaren ikurra mundu osoan ezagun egin da. | GOIENA

Eskaner barruan erditu du emakume batek

M.B. | BERGARA

Berlingo ospitale baten gertatu da. Teknologia berria omen da. Umearen mugimendu guztiak monitorizatu dituzte. Bi urteko lanaren ondorioz sendagile alemaniarrek erresonantzia magnetikorako tutu-formako makina bat diseinatu dute. Hala, zuzenean

jaso ahal izan dituzte jaiotzearen zegoen ume baten mugimenduak amaren sabel barruan.

Aurrerapenak

Orain arte sendagileen baliabideak ekografiak, X izpiak eta ukimena izan dira. Diotenez, teknologia berri horrekin aurrerantzean

errazagoa izango da sor daitezkeen konplikazioak antzematea eta sufrimendu fetala erdieste. Besteak beste, posible izango da erditze goiztar baten aurrean gauden edo ez denboraz antzematea edo zesarea egitea beharrezkoa izango den edo ez baloratzea.



KULTURA



Parte-hartzaileetako batzuk zapatu goizean Oñatiko kaleetan grabaketa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

Oñatiko "zuloa" filmatu zuten zapatuan rallyan

- ▶ Zazpi talde aurkeztu ziren zapatuan Oñatiko film laburren rallyra
- ▶ Gaia "zuloa" izan da eta Oñatiko dendak izan dira lokalizazioa

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Oñatiko "zuloa" gaitzat hartu eta herria plato bihurtuta film laburren rallya egin zuten zapatuan Irudiz komunikazio enpresak eta Txanda elkarteak antolatuta. Goizean goiz zeuden partaidea

deituta, zazpi talde aurkeztu eta gaia banatu zieten: zuloa. "Beti aukeratu ohi da herriarekin lotura duen gai bat eta Oñati zuloa dela esan ohi dugunez..." dio barretxikiarekin Ruben Idigoras antolatzaileetako batek. Lokalizazio

zerrenda ere eman zieten partehartzaileei eta, hala, iluntzera arte izan zuten lanak aurkezteko denbora.

Azkenean Bilboko Espinaka films hirokoteak jaso zuen sari nagusia, 500 eurokoa.

Umorea eta drama

Umorezko lanak, traszendentatagoak, dramak... denetarikoa ideiekin osatutako film laburrak ikusteko aukera izan zuten zapatu gauean institutuan sari banaketara joan zirenek. Epaimahaia-

SARIAK

1. **Espinaka Films (Bilbo)**
2. **Txantxiku Wood (Oñati)**
3. **Urtzi (Oñati)**

ri dagokionez, Iban Garate, Aitor Arregi, Alberto Gorritiberea eta Jotxo Larrañagak osatu zuten, hain zuzen.

Antolatzaileak ere pozarren eta harrirituta, "partehartzaile asko edizio lanetan inoiz ibili gabeak" zirelako eta "emaitza oso txukunak" egon zirelako.

Hala, bigarren edizioan hasi dira pentsatzen eta gauzak ondo badoaz egin egingo dute.

XABIER BEITIA | TXANTXIKU WOOD TALDEKO KIDEA (2. SARIA)

"Denboraz oso larri ibili gara baina oso interesgarria izan da"

Santi Caro, Igor Umerez eta Xabier Beitiak berak osatzen dute bigarren saria jaso duen talde oñatiarra. Mikel Aranburu lagunari deitu eta euren artean osatu dute film labur irabazlea. Lehenengo esperientzia eta lan saritua. Aurrerantzean gisa honetako lehiaketetan parte hartzera animatuko dituzte zapatuan lortutako sari honek.

Zelan hartu duzue saria?

Guk behintzat ez genuen espero. Guk ahal bezain ondoen egin genuen baina gainontzekoen maila ikusita ez genuen espero bigarren saria.

Lehenengo aldia izan da gainera.

Gogoia geneukan. Etxean edota bidaiara eta halakoetan grabatu izan ditut bideoak, baina lehenengo aldia da lehiaketa baten parte hartzen duguna.



Santi Caro Txantxiku Wood taldeko kidea saria jasotzeko unean. | J.A.

Inoiz labur bat filmatzeko ideia komentatu izan dugun lagunak elkartu eta lehiaketa hau aukera polita iruditu zitzaigun.

Azkar, ondo eta presaka egin beharra dago lana rallyan. Esperientzia polita?

Erotzekoa. Egia da denboraz oso larri ibili ginela, aktoreak ere ez geneuzkan hasiera baten. Oso berandu ibili ginela uste dut, baina oso interesgarria izan da dena.

Nolakoa da aurketu zenuten filma?

Beste dimentsio batera jauzia egiten duen zulo baten sartzen da protagonista; dimentsio arraro baten sartzen da eta azkenean kale baten amaieran atzera ere ikusten du zulo bitxi hori.

Hara sartu eta dimentsioz atzera aldatzerakoan, auto batek harrapatzen du eta hil. Bere aurpegiarekin eta autoaren zaratarekin amaitzen da filma.

Animatuta egongo zarete hortaz halako beste lehiaketaren baten parte hartzeko.

Pentsatu dugu, bai, besteren baten parte hartzea. Gainera egindako film labur honetan akats asko ikusi ditugu eta hobeto egin gura dugu. Denboraz oso larri ibili gara eta hurrengoan hori hobeto kontrolatu behar dugula ikusi dugu. Denbora behar da gauzak hobetzeko. Duda barik, aurkeztuko gara.

Sariarekin zer egingo duzuen bada-kizue.

300 euroko balea txandako dendetan gastatzeko. Ez dugu pentsatu.



Hamalau ahotsek osatzen dute Txorbela otxotea; San Frantzisko eliza bete egin zuen. | JOSETXO ARANTZABAL

Aurkeztu eta ikusleak txunditu, Txorbela otxoteak

Arrasateko taldeak aurkezpen kontzertua egin zuen zapatuan San Frantzisko elizan

IKER BARANDIARAN | ARRASATE

Arrasatearrek ia bi urte itxaron behar izan dute Txorbela otxotea herrian entzun arte. Zapatuan egin zuten emanaldia San Frantzisko elizan, eta Jabier Alberdi donostiarra izan zuten zuzendari.

Ahots ezagunak dira Txorbela-lakoak, eskarmentudunak, eta jarleku guztiak betetzeaz gain, jende askok jarraitu zuen zutik emanaldia. Aspaldiko otxoteen ildo berreskuratzeko asmoarekin sortu zuten taldea, baina kantu-

tegia zabalagoa da. 14 ahotsek esku hartu zuten eta lehen zatia eliza kutsuko piezekin hasi zuten arren, habanera estilokoekin bukatu zuten. Atsedendaldia labur baten ostean, etorri zen onena: euskal folkloreko hainbat pieza eder (*Maitia nun zira, Oi ama Euskalherri...*) eta baita umorea uztartzen duten *El menú, Ensalada italiana* eta antzeko kantuek ere. Gainera, entzuleei eskatu zieten Leteren omenez *Xalbadorren heriotzean* abesteko eta jendea pozarren ibili zen. Txalo zaparrada ederra jaso zuten.

UNE taldearekin ekingo diete 2011ko Kooltur Ostegunei

Eguen honetan, metala, rocka eta pieza akustikoak batzen dituen taldea gaztetxean

I.B. | ARRASATE

Azaroan hasi zuen ibilbidea Kooltur Ekintza elkarte berriak sortutako Kooltur Ostegunak ekimenak eta ordutik aster-astero musika talde bat aritu da Arrasateko gaztetxean.

Azaroa eta abendua pasa ostean, urtarrila gogoz hasi du berriro Kooltur Ekintzak eta dagoeneko argitara eman du urteko lehen hilabeteko programa: hilaren 13an, UNE; 20an, Los Carniceros del Norte; eta 27an, Lobo Electrico. Hiru proposamen interesgarri eta desberdin, eguenetan ohikoa duten moduan.

Urtarrilean, hiru emanaldi

UNE taldearen ahotsa Aitor Uriarte oñatiarra da, Latzen eta Sen taldeetan aritutakoa. Bizkaiko hainbat lagunekin UNE sortu zuen, metala eta rocka uztartuta, eta orain *Akustikoak eta bestelako uneak* izeneko lana argitaratu berri dute, kantu zahar eta berriei bestelako sonoritatea gehitu diena. Eguenean igoko dira gaztetxe-ko agertokira, 22:00etan.

Barakaldoko Los Carniceros del Norte punk siniestro taldea eta Tolosako Lobo Electrico talde beroa izango dira hurrengo proposamenak.



Aitor Uriarteren UNE taldeak hartuko du agertokia eguenean. | BAGA BIGA

goienakluba™

Abantailaz betetako kluba!

Opari ederrak zure esku!

Zozketa bereziak 2011n

goienakluba™ 2011

BAZKIDEA:

BAZKIDE ZENBAKIA:

goiena™
KOMUNIKAZIO TALDEA

Bazkideentzako informazioa: 943 05 05


Gabonetan oparitu txartela

- ▶ Gabonetarako opariren bat falta bazaizu, aukera paregabea duzu: oparitu Goiena Klubeko txartela.
- ▶ Urtean 48 euro ordainduta askotariko abantailak izango dituzu.



Irabaz itzazu 350 €

- ▶ 2011rako opariren artean 350 euro zozketatuko ditugu.
- ▶ Otsailaren 28a baino lehen bazkide egiten direnen artean egingo dugu zozketa.



Home Cinema zuretako

- ▶ 2011n bazkide izaten jarraitzen dutenen fidelotasuna sarituko dugu.
- ▶ Otsailaren 14an Home Cinema bat zozketatuko dugu bazkide izaten jarraitzeko erabakia hartzen dutenen artean.
- ▶ Ezaugarriak dira: Panasonic SC-PT350W DVD Home Theater Sound system.

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | 2011 urteko bazkidetza: 48 euro.

www.goienakluba.com

Ander Mujika eta Miren Narbaiza | Napoka Iria

"Barruak eskatzen zigun jada diskoa grabatzeko garaia zela"

- ▶ Zabalotegin grabatu dute zapatu eta domekan diskoa berria zuzenean
- ▶ Udaberrirako aterako dute nahasketa lanak amaitu eta gero

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Lanak argitaratze egun, modu ala izenik ez du oraindik, baina Napoka Iria bikoteak (Eibar, Elgoibar) asteburuan jo dituzte disko berria osatuko duten kantuak. Zuzenean grabatu dute diskoa, zapatuan etxekoen eta lagunaren aurrean eta domekan, osterara, ikusle guztientzat.

Lehenengo diskoa zer eta zuzen zuzenean grabatzea ez da ausar-keria?

Guk, azken finean, grabatzera-koan, aldi berean jotzen dugu, zuzenean egongo bagina bezala. Aurreko bi maketak ere hala grabatu genituen eta iruditu zitzaigun diskoa ere zuzenean bezala graba genezakeela eta gainera lagunak gonbidatu. Hala ere, ez genuke esango hau lehen diskoa denik, baizik eta egiten dugun gauza bat gehiago. Proiektuaren jarraipena da eta inoiz ez da berandu. Gure martxari eusten diogu.

Bitxia da 2005etik jotzen jardun duen taldea izateko bi EP soilik kaleratu izana.



Miren eta Ander, Zabalotegi kanpoan. | JOSETXO ARANTZABAL

"Diskoak eginiko lanari epea ipintzen dio: Hau da orain arte egin duguna"

"Gogorragoa da gure soinua; abesti tristeak ez dira hainbeste"

Kontzertu asko egin dugu baina, ezin zenbatzerainoko kopurua. Ze, zuzeneko taldea izan gara beti. Gure esentzia hor dago eta diskoan ere zuzenekotasun horri eustea nahi dugu. Horren ondorioz gure abestiak oso aldakorrak izaten dira, zuzenean ibiltzen garelako gehiago.

Azken EPTik bost urte igaro dira. Eboluzio urteak izan dira?

Konfiantza asko irabazi dugu eta agian soinu aldetik gitarra elektrikoak sartzea izan da urratsik handiena. Diskoak guretzat duen garrantzia da lanari epe bat ipintzen diola: "Hau da orain arte egin duguna, honela geratzen da". Hurrengo pausua ere erraztu egiten du diskoak.

Oso "unean unekoa" da, hortaz, zuen planteamendua.

Bai, eta beti aurrera egiteko gogoz. Diskoarena barruak jada eskatzen zigun zerbait zen, garaia zela.

Eta diskoan zer da aurkituko duguna?

Ba, ez dakigu, ze guk gauza horiei buruz ez dugu sekula ere hitz egiten. Agian lehenago leunagoak ginen eta orain gogorragoa da egiten duguna. Abesti tristeak ere ez dira hainbeste...

Kontzertuak lortzea erraza da?

Guk uste dugu Euskal Herrian badagoela kultura handia eta gainera areto asko dago. Beste leku askotan baino gehiago, egia esan. Zure aldetik ere ipini beharra duzu eta badauka sakrifizio apur bat; baina guri orain lehen baino askoz gehiago deitzen digute eta asko eskertzen dugu.

Neguko gida eskura, ia 100 liburu eta disko gomendiorekin

J. B. | ARRASATE

Neguko gida kaleratu dute seigarren urtez Debagoieneko udal liburutegiek. Orain dela sei urte hasi ziren horrelako gidak kaleratzen eta helburua da aholkua ematea liburuekiko zaletasuna duten pertsonei, erostera doazenei edo irakurtzeko gogoia dutenei. Hortaz, aurtun, Debagoieneko liburuzaingek liburu eta ikus-entzunezkoen aukeraketa bat egin ostean, ia 100 produktu gomendatzen dituzte gidan. Liburutegietan eskura edukitzeaz gain, liburu dendetan ere badaude, eta ikastetxeetan ere banatu dituzte.

Adinez adin

Gomendioen artean, 0 urtetik gorakoentzako otsoei buruzko *Harri etxekaria* liburu gomendatzen da eta 6 urtetik gorakoentzako *Hodeiekin dantzan*. 9 urtetik aurrerakoentzako Karmelo Iribarrenen poesia lan bat aukeratu dute Agiriario bibliotekariak. Gazteentzat, berriz, Cornelia Funke-ren *Reckless*. *Harrizko haragia* eta helduentzat, *Cosas que los nietos deberían saber*.

ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA

09:00 -14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2011

urtarrilak 15
otsailak 19
martxoak 19
apirilak 16
maiatzak 21
ekainak 18
uztailak 16
irailak 17
urriak 15
azaroak 19



FINALA

SARRERAK ETA ABONUAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO


urtarrilak

14

EGUBAKOITZA

22.30

ELGETAKO KAFE ANTZOKIA



FINALISTAK

DESPREZIO

ARRASATE / SORALUZE

XARMA

BERRIZ / ONDARROA

LORD WITCH

BERGARA

TALDE
GONBIDATUA

ATOM RHUMBA

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEAK

goiena



GURE MUSIKA TALDEAK

NAHIXAN



Ezkerretik eskuinera, Axier Kiriketa, Patxi Cabanillas, Aitor Sologaitoa, Iñigo Larrinaga eta Axular Arizmendi. | KOLDO BARRUETABENA

"Gure musika zuzena eta herrikoia da, entzuleekin batera abesteko modukoa"

- ▶ Nahixan taldeak 'Taupadak' diskoa kaleratu zuen urriaren 25ean
- ▶ Haritz Harreguy teknikariarekin grabatu zuten lana Hi Gain estudioan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Nahixan taldeak *Taupadak* diskoa kaleratu zuen urriaren 25ean. Patxik, Iñigok, Axierrek, Aitorrek eta Axularrek osatzen dute taldea. Bada, haiekin egin dugu berba disko berri horren ezaugarrien gainean.

Diskoa grabatu duzue. Pozik emaitzarekin?

Beti egoten dira gauzak hobetzeko, honek beste gauza askok bezala ez duelako amaierarik, baina oso pozik gaude diskoaren soinuarekin eta emaitzarekin. Behin diskoa esku artean izanda,

berriro ere hasi gara gehiago entzuten, eta gero eta gehiago gustatzen zaigu.

Non grabatu duzue?

Diskoa Haritz Harreguyren Hi Gain estudioetan grabatu genuen apiril-maiatzean. Esperientzia aberasgarria izan da. Izan ere, esperientzia duen jendearekin lan egiteak mesede egiten du, askotan azterketa bat dela dirudien arren. Diskoa urriaren 25ean kaleratu genuen.

Non eros daiteke diskoa?

Diskoa gure myspace-en bitartez eros daiteke: hain zuzen ere,

www.myspace.com/nahixan webgunean. Bestalde, diskoak saltzen dituzten dendetan ere eros daiteke, eta baita gure zuzenekoetan ere. Lan hori guztia gure managerrak egiten du.

Ze musika mota egiten duzue?

Batez ere, pop estiloan oinarritzen da. Dena den, rock ukitu asko duela esango genuke. Guk egiten dugun musika zuzena eta herrikoia da. Entzuleekin batera abesten den horietakoa.

Bigarren diskoa da zuendako. Ze ezberdintasun daude bien artean?

Lehenengo diskoa zuzenagoa zen eta soinu rockeroagoa zuen. Bigarrenak, aldiz, soinu goxoagoa du, beste xarma bat dauka, momentu askotan laztandu egiten zaituen diskoa da, ezberdina.

Zuen lana ezagutzeko gogoak duenak nora joan beharko du?

Abenduaren 11n hasi genuen diskoa aurkezteko bira Arrasaten. Datozen egunotan, Tolosako Bonberenean (urtarrilak 14), Mutrikuko gaztetxean (otsailaren 12an), Bilboko Kafe Antzokian (otsailaren 17an) eta Bermeoko Kafe Antzokian (otsailaren 25ean) egingo ditugu zuzenekoak.

Noiz sortu zenuten taldea? Ze helbururekin?

Aitor 2008ko urrian heldu zen taldera eta orduan hasi zen sendotzen, nahiz eta lehenagotik Axularrek eta Patxik lehen zuta-beak jarrira zituzten. Helburu nagusia diskoa grabatu eta taldea ezagutaraztea zen. 2009ko urtarrean egin genuen lehen grabazioa. Disko hartako kantu asko irratian entzun ahal izan ziren, tartean *Argi lotuak*.

Nola ikusten duzue musika panorama?

Egia esan, nahiko gaizki. Krisiaren eraginez dirulaguntzak murriztu egin dizkiete kultura elkarteei eta erakundeei. Gainera, musikarion lana ez dute ondo baloratzen, eta, ondorioz, ez digute ondo ordaintzen. Bestalde, esan behar dugu talde eta ikuskizun eskaintza handia dagoela, oro har, eta horrek ere zailtzen duela panorama.

ZERTZELADA



PRODUKTUAREN IZENAXXXX

Estiloa: Pop-rocka.

Egilea: Nahixan.

Argitaletxea: Brian's Records.

Iraupena: 37,2 minutu.

Pop-rock garden eta xuxurlatua

Bilbo aldeko eta Eibarko kideak dituen taldeak bigarren diskoa du kalean, Serrano musika eragilearen eskutik. Pop-rocka egiten dute, gardena, xuxurlatua askotan eta malenkonia kutsua ere baduena, jakina, baina bada pieza erritmikoagoarik eta kutsu rockeroagoa duen piezarik ere. Hala ere, ezin da ukatu une batzuetan Ken 7 gogora ekarri digutela, baina baita antzematen dira Itoiz zein Loreleiren ukituak ere; eta argi esan dezakegu euskal folketik ere edan izan dutela. Maitasunaren gaineko hitzak dira gehienak, goxoak eta poetikoak, baina metaforaz beteta daude eta badira bestelako mezuak horren baitan ere. Horren barruan arakatu besterik ez da egin behar.

IKER BARANDIARAN

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

		Taberna		Auzune		Txorizoak	
		* Aretxabaletako uharka		Eskutoki		Koltxoia	
		Adi ezak!					
		Asko, ugari					
Buruan		Lore mota					
Esneki mota		Landareei darian isurkari					
						Titanioa	
						Noka, naiz	
Noka, genien							
Patu, asturu							
				Toka, naiz			
				Nor kasuaren atzizkia			
Ipar EH-n, halere						Bizkaieraz, iratzea	
Anizkoitzak						Urania	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

K	V	N	U	K	Z	I	N	V
V	R	I	T	A	L	V		
K	I	V	N	I	R	O	Z	
N	V	N	E	N	E	G	E	
I	T		R	T		U	J	
V	S	O	R	A	R	A	G	
K	V	Z	A	I				
U	L	U	R	K	U	R		
L		V	I					

6	8	6	1	3	4	2	5	7
2	1	3	5	8	6	7	4	2
1	5	4	8	9	7	2	3	1
4	9	5	3	2	8	1	6	7
3	1	7	6	5	9	8	2	4
3	2	8	6	1	4	7	5	9
9	5	3	2	1	4	6	7	8
8	2	1	7	6	5	4	3	9
7	6	4	8	9	3	2	5	1

U	E	V	A	R	E	A	U
O	N	I	B	B	A	N	T
U	A	M	E	L	O	I	A
K	J	M	X	A	Z	F	E
P	N	I	L	F	T	S	E
M	A	B	P	L	O	F	S
V	R	A	G	A	R	A	R
E	A	P	M	A	V	D	Z
N	L	A	Z	E	R	E	G



Hieroglifikoak:
Asko euskaraz eta erdaraz.

SUDOKUA

		4	8					
	2						3	9
			2	1	4	6	7	8
2	8	6		4		5		3
3		7		5		8		
4	9	5		2				
6				7				5
				8		7	4	
5		2	4					

HIZKI SALDA

Bost fruta.

G	E	R	E	Z	I	A	L	N
D	Z	A	O	P	M	A	A	E
R	A	S	A	G	A	R	R	A
S	F	A	L	O	P	B	A	M
N	E	T	F	O	L	I	N	P
F	E	S	Z	A	X	M	J	K
A	A	M	E	L	O	I	A	N
T	E	R	B	A	N	I	O	U
A	U	D	A	R	E	A	E	U

HIEROGLIFIKOA

Irakurtzen al duzu?

**asko,
mucho
beaucoup**

**GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.
EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.**



Eskelaren prezioa: 122,50 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 163 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

ESKER ONA

Pedro Urteaga Arregi



Aretxabaletan hil zen 2010eko abenduaren 29an, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2011ko urtarrilaren 10ean.

OROIGARRIA

Bernardina Idigoras Cendoya



Jesus Mari Ganboa lankidearen ama

Arrasaten hil zen 2010eko urtarrilaren 4an, 88 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.



Arizmendi ikastolako langileak.
Leintz bailaran, 2011ko urtarrilaren 10ean.

Independentziaren aldeko 'lipduba' ikusgai sarean


Urte hasierarekin batera kale-ratu dute Durangoko azokan grabatu zuten independentziaren aldeko *lipdub* herrikoi jendetsua, Kortaturen *Sarri-Sarri* abestiaren musikarekin. Sarean, Youtuben bertan "Dantzaz independentzia" hitzen bilaketa eginez gero aurki daiteke esandako bideoa



Bideoaren une bat. | YOUTUBE

Sistema operatzaile berria aurkeztu du Google-k: Honeycomb

Aurkeztu berri duen Honeycomb sistema eragilea bereziki izan da diseinatuta tabletarako; Android sistemak mugikorretan emaitza onak eman baditu ere tabletetan egin du huts. Arazo horri aurre egitera dator Honeycomb sistema eragile berria.



Menu nagusia.

Sustatu.com %22,57 hazi da azken urtean, 619.510 bisitaldirekin

Urtero argitaratu ohi dituzte estatistikak Sustatukoek eta aurten ere pozik egoteko modukoak dira. Inoiz baino irakurle gehiago izan dituzte 2010ean eta 1.936.756koa izan da ikusitako orrialde kopurua, %62ko igoerarekin. Guztira 1.174 artikulu argitaratu ziren eta 3.199 erantzun jaso zituzten.



Sustatu.com.

Semaforo gorria Nintendori, horia Apple-i eta berdea Nokiari

Greenpeace etxeak elektronika ekoizleen ranking ekologikoa kaleratu du eta ekoizle nagusi gehienek baleko emaitzak lortu dituzte


JON BEREZIBAR | ARRASATE
Atzo amaitu zen Las Vegasen elektronikaren azokarik handiena. Merkatuko puntako nobedaderik ikusgarrienak aurkeztu dira bertan urtero, baina marka nagusiei belarrietatik tira egin dienik ere egon da. Greenpeace erakundeak urteko produktu ekologikoenak aukeratu ditu eta horrekin batera ekoizle "berdeen" rankinga osatu. Marka gehienek jantzi gura ohi dute domina berdea, baina gehienek kale egiten dute erakunde ekologistaren irizpideen arabera. Nokia eta Sony-Ericsson dira etxerik ekologikoenak eta Microsoft, Nintendo

eta Toshiba-ri semaforo gorri kolorekoa ipini diete. Nintendori, bereziki, produktuetan PVCa erabiltzeagatik eta produktuek eurek, ez dutelako inolako berrerabilpenik.
Aztergai osagai toxikoak
Produktuaren osagai toxiko kopurua eta berrerabilpeneko zein birziklatzeko ematen dituen aukerak dira Greenpeace darabiltzan irizpideak. Eta irizpide horietatik oso urrun daudenak Microsoft eta Nintendo dira (10eko eskalan bi puntura ere ez dira heltzen). Baleko puntuazioa, berriz, Philips, HP, Samsung, Motorola,

Panasonic eta Sony etxeek lortu dute. Deigarria da, era berean, Apple etxearena. Marka sonatuak gutxiegi atera du nahiz eta produktu berriren aurkezpenetan nabarmendu ingurugiroarekiko duten kontzientzia.
Orokorrean baikor
Halere, baikor izateko arrazoiak daudela diote Greenpeacekoek. Oraindik ere elektronika-gai ekologikoak ekoizteko arazo tekniko handiak daudela jakitun direla diote eta nabari dela horiei ere aurre egiteko ahaleginetan dabilzala ekoizle nagusiak, trabak traba.

Ekoizle ezagunenek lortutako puntuak

- ▶ 7,5 Nokia. Osagai toxiko gutxien darabilen konpainia. Energia irizpideetan puntuazio altua lortu du etxe honek. Produktuak berrerabiltzeko zailtasunean egin du huts.
- ▶ 6,9 Sony-Ericsson. Osagai toxikoak ez erabiltzeko irizpide guztiak betetzen ditu.
- ▶ 5,5 HP. PVCrik ez dute erabiltzen jada eta berlinoa aurtengo ekainerako kentzeko plana ipini dute abian.
- ▶ 4,9 Apple. Osagai toxikorik ez darabilte ia baina oraindik erabiltzen dituzten horien gaineko asmoei buruz gutxi azaltzen dute.
- ▶ 2,3 Toshiba. Etxe japoniarrak atzera egin du PVCa desagerrarazteko programa atzeratu eta informazioz ez emateagatik.
- ▶ 1,9 Microsoft. 2011rako zenbait osagai toxiko erabiltzeari uzteko konpromisioari kale egin dio enpresa honek.
- ▶ 1,8 Nintendo Osagai toxikoetan hain txarto ez badabil ere, Nintendoko piezak ezin dira inolara ere berrerabili eta ekoizpenean isurtzen duten CO2 kopurua handiegia da oraindik.



Greenpeace erakundeak egindako grafikoa. | WWW.GREENPEACE.COM

Europako nabigatzaileak erabilienean da Firefox, Internet Explorerren aurretik

Mozilla fundazioaren nabigatzailea merkatuaren %38,11k erabiltzen du

J.B. | ARRASATE
Europarrek gehien erabiltzen duten nabigatzailea da Firefox, StatCounter web kontatzailearen datuen arabera. Azeritxo gorriaren nabigatzailearen merkatu kuota %38,11koa da, Microsoften Explorerrek hartzen duen %37,52aren parean. Hala ere, StatCounter erakundearen presidentearen arabera, hau ez da gertatu Firefoxen hazkundearagatik, baizik eta Google Chrome nabigatzaileak merkatu kuota zati bat jan diolako Explorerri.

hona erabiltzaile kopuruan murriztazo, baina merkatuaren %46,94-rekin. Firefoxek %30,76ko merkatu kuota dauka eta Chrome %5,45etik %14,85era hazi da. Eta

haiz zuzen Googlen nabigatzailearen bilakaera ikaragarria da; datuek erakusten duten hazkunderik nabarmenena. Gehien hazi den nabigatzailea da Google Chrome

me eta hazkunde horrek ipini du hain zuzen, kolokan Explorerrek Europan orain arte izan duen lidergoa. Oso kontuan hartzekoa da 2008ko abenduan hasi zela Google Chrome eta ordutik hazi besterik ez dela egin. Microsoft Internet Explorerri kendu dizkio lortutako erabiltzaile gehienak. Bai Mozilla Firefox zein Google Chrome kode irekiko nabigatzaileak dira, erabat itxia den Explorerren aurrean.

Mundu mailan liderra, Explorer
Microsoften nabigatzailearen hegemoniarekin haustea ia meritu historikotzat har badakioke ere, Firefoxen gailentzea Europan soilik da azpimarragarria. Izan ere, mundu mailan Explorer da nabigatzaileak erabilienean, ia zitik



Gaur egun merkatuan gehien erabiltzen diren nabigatzaileen ikonoak. | GOIENKARIA

ZORION AGURRAK



OÑATI
Uxue Igartua Kortabarría
Urtarrilaren 14an, 4 urte.
Zorionak printzesa. Ondo ondo pasa zure eguna eta mila patxo haundi zuretzat etxeko partetik.



BERGARA
Maialen eta Aiora
Urtarrilaren 13an, 11 urte. Zorionak bikote, ondo pasa zuen urtebetetzean. Musu haundi bat etxeko partetik.



OÑATI
Edurne Galdos
Urtarrilaren 12an, urtebetetzea. Zorionak, potxola! Aurtengua urte ona izango da, duda barik. Kuadrilakuen partetik patxo haundi bat! Txipiroiak noizko?



OÑATI
Beñat Odriozola Igartua
Urtarrilaren 11n, 3 urte. Egun eder bat pasa dezazula zure hirugarren urtebetetzean. Patxo haundi bat zure guraso, osaba-izeba eta familia osoaren partez.



ARRASATE
Julen Barandiaran Sánchez
Urtarrilaren 10an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu bat etxeko eta lagunen partetik.



ARRASATE
Lander Lopez Kortabarría
Urtarrilaren 10an, 34 urte. Zorionak eta urte askotarako, guapo! Ez ahaztu Madriletik bueltan bazkai bat pagau bihar dozula, eh?




ARAMAIO
Eneritz Kortabarría
Urtarrilaren 10ean, 7 urte. Urteaskotako pottoka. Ia-ia amatxo arapatu duzu. Zazpi muxu haundi lbon, Anje, aitaxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Izaro Artetxe Arregi
Urtarrilaren 9an, 4 urte. Zorionak marimatrakilla! Orain arte bezain alai eta jator jarraitu. Bihotz-bihotzez, Malen, amatxo eta aitaxo



BERGARA
Gorka Domenech Iñarra
Urtarrilaren 8an, 6 urte. Zorionak pitxin. Txokolatezko muxu mordo bat eta belarri tira handi bat, aitaxo, amatxo eta Aratzen partetik.



ARRASATE
Izaro Sampedro Elorza
Urtarrilaren 8an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat Maialenen partez!



OÑATI
Haizea Lopez Las
Urtarrilaren 7an, 2 urte. Zorionak gure printzesa txikituenari etxeko guztien partez.



ARRASATE
Alaitz Azula Urrutia
Urtarrilaren 7an, 3 urte. Etxeko partetik muxu haundi bat. Eta oso ondo pasa eguna.



BERGARA
Malen Etxaniz eta Mireia Etxaniz
Malenek 4 urte betetzen ditu urtarrilaren 7an eta Mireiak urte bat bete zuen abenduaren 26an. Egun on bat pasa eta muxu bana.




OÑATI
Aimar Madina Zubia
Urtarrilaren 6an, 7 urte. Zorionak Aimar, ondo ondo pasatu zure eguna eta patxo haundi bat etxeko danen partetik.




BERGARA
Markel Martinez Garitano
Urtarrilaren 6an, 3 urte. Zorionak eta muxu haundi bat denon partez eta beti bezain alai jarraitu!



OÑATI
Uxue Ugaldes Urkiola
Urtarrilaren 6an, 8 urte. Zorionak futbolzale! Zortzi patxo handi etxeko danen partez.



ARRASATE
Iker Arenaza Pagaldai
Urtarrilaren 6an, 7 urte. Zorionak eta patxo mordo bat gure errege jatorarentzat, Haizea amatxo eta aitaxoren partetik.




OÑATI
Naroa Moreno Zubia
Urtarrilaren 6an, 3 urte. Zorionak txikitina! Ondo pasa zure hirugarren urtebetetzean eta laztan haundi bat aitaxo, amatxo eta Aiur-en partez.



OÑATI
Leire Zelaia Arrese
Urtarrilaren 5ean, 13 urte. Zorionak etxeko partez! Ondo-ondo pasa. Muxu asko.




BERGARA
Oihan Zubiaga Ilarduia
Urtarrilaren 5ean, 3 urte. Zorionak, potxolo! Oin bai, oin 3 urte dauzkazu. Patxo potolo-potolo bat danon partez, mutikote.



OÑATI
Naroa Olalde Galdos
Urtarrilaren 5ean, 9 urte. Zorionak maittia! Ondo-ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxutxoak eta belarri tirakadak aitaxo, amatxo eta Maia-ren partetik.



ARRASATE
Aurre Matilla Urrutia
Urtarrilaren 3an, 38 urte. Milaka patxo eta belarri tirakada, ederto hasi urtea eta primeran ospatu, laguntxo guztien partez. Patxitos.



OÑATI
Iñaki Larrañaga Etxeberriarteun
Abenduaren 30ean, 5 urte. Zorionak txapeldun! oso-oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Familian partez bost patxo potolo-potolo.




OÑATI
Unai Blazquez Plazaola
Abenduaren 29an, urtebete. Zorionak, mutikote, etxeko danon partez.



BERGARA
Laida Unamuno Lopez
Abenduaren 29an, 2 urte. Zorionak politxa! Ondo-ondo ospatu zure bi urtetxuak eta zuretzat txokolatezko patxo mordo bat Zalao, amatxo eta aitaxoren partez.




DEBAGOIENA
Irati Guenetxea Bengoa
Abenduaren 28an, 5 urte. Zorionak bi familien partetik eta bereziki Peruren partetik muxu handi-handi bat.



ARRASATE
Ane Regodesebes Mendiaratz
Abenduaren 28an, 9 urte. Zorionak prexioki!! Egun ona pasa ta patxo pila, zigarrolakuen partez.



BERGARA
Itziar Morillas
Abenduaren 27an, 27 urte. Zorionak!! Oso ongi pasatu eguna eta kontuz txanpainarekin!! Zure lagunen partez!! Patxitos guapa.



BERGARA
Ekhi Ormaetxea
Abenduaren 26an, urtebete. Aupa, pototo! Zorionak etxeko danon eta Leire, Oier eta Aneren partetik! Eskatu Aratzi opari on bat!



OÑATI
Lide Kortabarría Suarez
Abenduaren 26an, 9 urte. Zorionak potxola. Muxu pila bat eta primeran pasa zure urtebetetze eguna.



ARAMAIO
Nati Mena Moya
Abenduaren 25an, 43 urte. Zorionak, tia Nati!



BERGARA
Garazi Plazaola
Abenduaren 23an, 11 urte. Zorionak Garazi zure urtebetetzean, etxeko eta bereziki Joanes, Mirari, Maialen eta Manexen partez.



ARRASATE
Ametz Zulueta Algorta
Abenduaren 22an, 2 urte. Geure Anbotoko sorgintxoari moso handi bat eta zorionak!

JAIOTAKOAK

2010 URTEKO AZKENA

**Nahia Oianguren Lopez de Lapuente**

Aretxabaleta. 2,460 kilo. Abenduaren 31n. Gurasoak: Ama Itxaso (Gasteiz) eta aita Beñat (Aretxabaleta) Argazkian, Nahia jaioberria amarekin.

2011 URTEKO LEHENA

**Anje Okaranza Atxaga**

Aretxabaleta. 3,700 kilo. Urtarrilaren 1ean. Gurasoak: Ama Iragartze (Aretxabaleta) eta aita Aitor (Aretxabaleta) Argazkian, umea lotan.

**Markel Urrutia Zubia**

Arrasate. 2,910 Kilo. Abenduaren 27a. Gurasoak: Amaia eta Igor. Argazkian, gurasoekin eta Naroa arrebarekin.

**Aner Galiot Jurado**

Arrasate. 2,700 Kilo. Abenduaren 18a. Gurasoak: Maria eta Alfonso. Argazkian, umea aitarekin.

**Nahia Iriarte Portales**

Arrasate. 3,300 Kilo. Abenduaren 22a. Gurasoak: Nayara eta Alberto. Argazkian, Nahia sendikoekin.

**Ilia Elorza Anduaga**

Oñati. 3,600 Kilo. Abenduaren 21a. Gurasoak: June eta Unai. Argazkian, umea amarekin.

**Gabriela de Jesus Remelhe**

Arrasate. 3,730 Kilo. Abenduaren 22a. Gurasoak: Claudinga eta Paulo. Argazkian, umea aitarekin.

**Eneko Diaz Lazkano**

Eskoriatza. 3,950 Kilo. Abenduaren 24a. Gurasoak: Olatz eta Iban. Argazkian, amona Maribelekin.

**Adaia Elorza Goiena**

Elorrio. 3,030 Kilo. Abenduaren 26a. Gurasoak: Maria eta Mikel. Argazkian, aitaita Jose Ignaciorekin.

**Manex Barandiaran Guijarro**

Eskoriatza. 2,800 Kilo. Abenduaren 24a. Gurasoak: Eva eta Mikel. Argazkian, gurasoekin.

**Eneko Iribar Gallastegi**

Soraluze. 3,810 Kilo. Urtarrilaren 3a. Gurasoak: Monika eta Xabier. Argazkian, umea amarekin.

**Marc Brunso Unzurrunzaga**

Bilbo. 3,100 Kilo. Abenduaren 31. Gurasoak: Ainhoa eta Joan. Argazkian, umea lotan.

**Danel Estrella Luengo**

Arrasate. 2,980 Kilo. Urtarrilaren 5a. Gurasoak: Mainer eta Casiano. Argazkian, amama Marijerekin.

**Deiane Fernandez Caballero**

Arrasate. 3,300 Kilo. Urtarrilaren 3a. Gurasoak: Bea eta Pedro. Argazkian, Aitor eta Ainhoa lehengusu-lehengusinekin.

**Aiane Lopez Martin**

Eskoriatza. 3,230 Kilo. Urtarrilaren 4a. Gurasoak: Ana eta Jorge. Argazkian, Aiane aita eta amarekin.

**Maialen Pedrosa Murua**

Oñati. 3,150 Kilo. Urtarrilaren 3a. Gurasoak: Nekane eta Juan Carlos. Argazkian, Maialen, neba Unairekin.

**Leire Oraá Zubizarreta**

Aretxabaleta. 3,200 Kilo. Urtarrilaren 3a. Gurasoak: Garbiñe eta Iñaki. Argazkian, umea sehaskan.

**Gari eta Oihan Hernandez**

Aretxabaleta. 3,150 eta 3,250 Kilo. Abenduaren 20a. Gurasoak: Aitziber eta Ander. Argazkian, Gari eta Oihan amarekin.

**Irati Letona Zumalde**

Oñati. 2,950 kilo. Abenduaren 29an jaiotzen. Irati jaioberria, Arantxa amamaren besoetan.

BABESLEA



AI, ENE!

Aire girotua asmatu izan ez balute, baina...

Oraindik, dena den, badira errepideetan aire gabeko ibilgailu ugari. Giroturik ez du izango, baina aire faltan ez dabil hau.
www.sarda.es



AHOBERO

"Batzuek besteak salatuz hasi ziren gizateriako gauza izugarri batzuk".

JAVIER L. DE LA RIVA | VALLADOLIDKO ALKATEA

Nazismoarekin konparatu du Valladolideko alkateak tabakoaren lege berria dela-eta lege-hausteen lekuko direnei horiek salatze egin zaien gonbidapena. Belarrietatik kea aterako zitzaien berriro Pajini hau entzutean.

lainformacion.com

EGURALDIA



Max. 11°

Min. 4°

Goizean hotz, baina gero ostareak. Tantaren bat gaez.

www.euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-01-10

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Arkaitz Estiballes Bizkaiko bertsolarien txapelduna da joan den abenduaren 18a ezker. Seitan finalera iritsi eta azkenean jantzi du txapela; oraindik hunkitu egiten da egunaz gogoratzean. | JON BEREZIBAR

"Sariak lagunei eman nizkien; horrela, bisitan joango naiz"

1. Benetan hunkituta ematen zenuen finalean.

Niretzat plazera izan zen saio osoa. Gainera, txapela ez duzu sekula zeure buruaren gainean imajinatzen, eta hala gertatu zela ikusita, neu ikaragarri emozio-natu nintzen.

2. Bi haur txikiren aita izanik, astirik badago bertsoarako?

Nik zorzea daukat eta lanaldi murriztuarekin nabil! Inoizko denbora luzean izan dut umekin egoteko eta horrek burua asko lasaitzen du bertsoarako ere.

3. Bestela, lanean eta kalean, zeu bertsoz inguratuta bizi zara.

Lanbidea eta afizioa bertsoak dira niretzat, baina sekula ez da izan nire bizitzako zatirik garrantzitsuena.

4. Zer da, ba?

Ba, adibidez, lagunekin egon eta zerbezatzeko artean eguneko pasadizoak kontatzea. Eguneroko ohitura hori badut, agian osasungarriena ez dena. Bertsoarako gaiak ere, asko handik datoz. Lagunarte zabal eta oso polita daukagu. Bizitza bizi izatea da bertsoetako inspirazio iturri ona, eta politena.

5. Kalean egiten da, hortaz, bertsolaria.

Neu, behintzat, Galdakaoko Bertso Eskola barik ez nintzateke ezer. Asteroko bileratxo horiek niretzat bizipoza izaten ziren eta asko zor diet bertako lagunei.



JON POZO

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Euskara ikastea doan ipiniko nuke"

"Burura ideia asko badatozkit ere, lehenik eta behin, euskara ikastea doakoa izatea bermatuko nuke. Gizarte honen trauma handienetako bat da eta lotsagarria iruditzen zait gure herriko hizkuntza ikasteko ordaindu behar izatea, bestelako gauza hutsaletan dirutzak gastatzen diren bitartean."

6. Txapela Atxuriko taberna baten utzi ei zenuen.

Bai, lagunentzat, ez naiz-eta oso trofeozalea. Emandako sariak laguneren artean banatu ditut eta horrela aitzakia daukat itzuli eta bisita egiteko.

7. Amari ere ez dio ilusiorik egiten?

Gogoan dut Euskal Herriko txapelketan lehenengo aldiz parte hartzeko eskubidea lortu nuenean eman ziguten oroigarriak xaboa uzteko platertxo ematen zuela, eta, azkenean, funtzio horrekin amaitu zuen gurasoengan. Bisitak zur eta lur geratzen ziren.

8. Aginte makila ere eman zizuten. Hori nori eman zenion?

Ondarroako herriari. Ni prest nago herri honetan normaltasunera iristen bagara eta Ondarroan agindu behar duenak agintzerik badu, alkate jaun-andre berriari neure makila lagatzeko.

9. Irabazi eta gero bertso-kompromiso pila bat izango dituzu.

Eta gustura, gainera. Jendeak, uste dut, badakiela zein den nire bertsoak, eta batzuetan asmatuko dugu eta bestetan ez!

10. Taberna bai eta plaza ere bai, hortaz.

Niri gustatzen ez zaizkidan txapelketak dira, benetan txarto pasatzen dut. Nerbioekin asko sufritzekoa naiz, eta ez didate inolako mesederik egiten.

BIHARAMUNA

ELENA LAKA



Maldan gora

Euskal Herria aldapaz beteta dago, fisikoez ari naiz. Aldapeta, Aldapatxo, Aldatzgoi, Kondeko Aldapa toponimoak daude herri ezberdinetan, guztiak hori adierazteko: laua ez dena, aldapa alegia. "Maldan behera" da Arestiren liburua, hura leku fisikotik abiatuta, zentzu metaforikoa batera eramanez.

Urtea gaur hasten da. Urtririleko aldapa esaten diote orain aurrean zabaltzen zaigun garaiari. Urte bukaerako gehiegikeriak ordaintzen ditugun garaia, bixamona demasa. Bonbonkeriaren fakturaren ondorengo zenbaki gorriak.

Urtea gaur hasten da eta aldapsua datorrela dioskue, oraingoan ez zentzu fisikoan. Tira, gustuko tokian aldaparik ez, zioten gure zaharrek. Eta duda barik gustukoa izan behar du urte berri bati hasiera emateak, osterantzekoak badakigu zer den-eta.

Animo, beraz, urte berriari, nagiak astindu, ajeak gainditu eta hasi beroketak eta luzaketak egiten aldapari ekiten. Hobeia etorkizun dago, eta aldapa oso gogorra egiten bada, badago apur bat gertatzea, arnasa hartzea, eta poliki-poliki aurrera egitea. Inguuru honetan bizi garenok ondo baitakigu aldapa bat igo ondoren, gero beherantzkoa datorrela.



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak



SIMS
SERVIMASA
 Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
 Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
 20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
 Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
 20100 LEZO